

**JOSE ARIZTIMUÑO 'AITZOL'-EN  
MENDEURRENA**

*Tolosa, 1996-X-17*



**AITZOLEN MENDEURRENA.  
AITZOLEN JARDUERA AKADEMIKOA**

*Tolosa, 1996-X-17*

*Antxon Gonzalez Monfort,  
herriko alkateordea*

Euskaltzainburu jauna,  
Euskaltzain jaunak,  
Jaun-Andreok,

Arratsalde on gutztoi eta ongi etorri alkateordea naizen aldetik.

Dakizuenetz, gaurko egun batez, urriak 17, fusilatu zuten Jose Ariztimuño Olaso 'Aitzol', duela 60 urte.

Garai hartako prentsak, prentsa frankistak jakina, modu tragikoan hil zela esan zuen, autoistripua edo beste ezbeharren bat izan balitz bezala. Ez, fusilatu egin zuten, haren 'errua' euskaldun eta euskaltzale izatea izan zen. Barkatu egin behar dira gertakizun latzak, baina ez zait iruditzen ahaztu behar ditugunik nolanhari behintzat.

Beraz, poz handia da gaur Tolosan, gerra aurreko euskal kulturaren buruzagiari omen eta gorazarrea eskaintzea, aurtengo ospakizunetan Lizardiren alboan egon behar izanak, agian, merezitako lekua kendu baitio.

Bukatzeko nire eskerrik beroenak eman nahi nizkioke Euskaltzaindiari, Aitzolez gogoratu eta beharrezkoa duen tokian jartzen ahalegintzeagatik, saiatzeagatik, egia aitortu behar da Aitzol ilun xamarra geratu da eta, orain arte.

Besterik gabe, hitza Euskaltzainburuak du, Jean Haritschelharrek.



## JOSE ARIZTIMUÑO 'AITZOL'-EN MENDEURRENA

*Tolosa, 1996-X-17*

*Jean Haritschelhar,  
euskaltzainburua*

Tolosako alkate-orde jaun agurgarria,  
Euskaltzainkideak,  
Jaun-Andereak, agur.

Aurten Euskaltzaindiak nahi ditu ohoratu bi euskaldun idazle beren jaiotzeko mendeurrenean. Lizardi olerkariaz mintzatu dira Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa batzordeko kide batzuk, mende honetako olerkari bikaina go-raipatuz Zarauzko Udaletxean, joan den apirilean. Gaur, hemen gaude, Aitzol dugula gogoan, oroitarazi nahiz nor izan den, zer egin duen bizia labur izana gatik, zer eragin haundia ukan duen euskal letretan.

Hil dute Aitzol, hil dute euskaltzalea, hil dute abertzalea eta hil dute apaiza. Garai nahasi haietan bizia merke “kruzada” famatuko soldadoentzat, “fedearen” izenean hiltzen zituztelarik apaiz euskaldunak. Hamazazpi apaiz tirokatu dituzte, haien artean Aitzol eta ere Martin Lekuona, on Manuel Lekuona euskaltzainburu zenaren anaia, Juan Mari Lekuona oraiko euskaltzainburu ordearen osaba. Gogoan ditugu denak.

Gaur bilduak gara Tolosan, urriaren 17-a hautaturik, 1936-eko urriaren 17-an hil baitzuten Aitzol. Hirurogei urte iragan dira baina bizi da oraindik Aitzol, ez baitaiteke ahantz holako gizona, ez baitira ahanzkorrak euskaldunak. Ez naiz Aitzol-ez mintzatuko. Literatura Ikerketa batzordeko kide batzuei uzten diet lan hori.

Mintzaldiak entzun baino lehen, nahi dizkizut, Alkate-orde jauna, ene eskerrik beroenak eskaini, Tolosako Udalak egiten digun harrera ona gatik. Ongi etorri anaikorrena egin diozue Euskaltzaindiari. Esker mila, beraz, bihotzaren zolatik.



## AITZOL ETA BERE GARAIA

Tolosa, 1996-X-17

*Martin Ugalde*

Jose Ariztimuño Tolosan jaio zen orain ehun urte. Eta bere garaikideen testigantza bila joan nintzenean, don Manuel Lekuona, don Antonio María Labayen eta don Pío Montoyarena, Tolosa berak izan duen eraginaz mintzatu zitzaizkidan aho batez: Aitzolek zerbaiti zor ba dio bere sorterriari zor dio, Tolosako giro euskaldunari. Hor zegoen aspaldiko urtetan Andoaindik etorritako don Patrizio Orkaiztegi, dio Lekuonak, idazle joria, *Euskal Erriko* laguntzaile, eta batez ere honek Tolosan bertan argitaratu zuen euskaraz nola idatzi erakusten zuen eskuliburu baten egilea, eta bere inguruan euskal kulturako talde bat biltzen zuena ere bai. Aitzolek berak aipatu zuen don Patrizio idazlan batean Mendibururen editore bezala. Tolosaren beste aberastasuna, inprimategiak: Gorosabelena izana, López Mendizabal kultur gizon handiarena; Probintziakoa aldi batean bertan egon zen, eta Tolosan argitaratu zen euskal astekari errepublikarra zen *Euskal-Egia* (1894), eta baita, Aitzol beraren denboran (1915-1930), erderazko beste batzuk ere. Gipuzkoako politikan izan zuen Tolosak eragina, bestalde, eta honetaz Pío Montoyak, Aitzolen lagun min eta apezki-deak, hitz egin zidan: Tolosarrak ziren Emeterio Arrese, aipatutako López Mendizábal, Joan Andoni Irazusta (*Joañixio* eta *Bizia garratza da* eleberrien egilea), Antonio Maria Labayen, “Lizardi” handia, Pepe Eizagirre, diputatua (*Ekaitzpean* eleberriaren egilea), hauek denak EAJ/PNV barruko politikan lanean aritutakoak; Doroteo Ziaurritz, bere idazkari nagusia, ahaztu gabe! Baina ez ziren Alderdikideak bakarrik izan tolosarrak, baita sozialistak ere, De Francisco kasu, eta anarkistak, Viteri, eta karlistak Caballerotarrak, Elosegi.

Behar bada Donostiak zuen marko liberala politikan, baina politikako zuzendariak Tolosan zeuden.

### Comillas eta Gasteizko Seminarioa

Comillaseko Unibertsitatean sartu zuten Aitzol izenaz ezagutua izango zena hamairu urte zituela, 1909an, eta eliteko ikastetxe honetan “Orixe”kin egin zuen topo, hau maisu zela; urte batzuk gero Gasteizko Seminarioa pasa zutenean, berriz, don Manuel Lekuonarekin aurkitu zen euskal kulturalo bide

aberatsean, zorte hau ere izan zuen. Hemen apezten da 1922an, hogeita sei urtez, Eijo y Garay gotzain zela, eta laster ematen du bere bideko urrats garrantzitsu bat: Misioetako buru egiten dute (1923), hemen sortzen du *Gure Misionaria / Nuestro Misionero* (1924-1929), elebiduna, eta bertan erakusten du lehen aldiz tolosarrak zuen eratzaillearen sen harrigarria, zeren eta bost urte gero Espainia osoko Misioetako Idazkari Nagusia da sona handia duen Bartzelonako Primer Congreso Nacional de Misiones delakoan: 1929.go irailak 22-29.

Ahalegin handi honen ondoren gaisotu egiten da, hau dela eta suertatzen da aldaketa: Gipuzkoako Garin herrixkako apez bezala erretiratzen da.

### ***El Día egunkaria***

Lehenengo zenbakia 1930.go ekainaren 1.<sup>o</sup>an irten zen.

Seminarioan eratzaille bezala erakutsi zuen ahalmenaren doainaz gain, kazetaritza beste bat erakutsi zuen: bere erizpide orekatua, independentea. Ego-ki da, nik uste, bere garaiko giroaz ari garenez, orduko prentsez zerbait esatea. Donostian garai hartan goizeko hiru egunkari argitaratzen ziren: *La Constancia* eskuin muturrekoa, *El pueblo vasco*, Pikabea eta Urkola bi luma ezagunak buru zituela, moderatua, eta *La Voz de Guipúzcoa*, ezkerrekoa, ongi egina. Bazen arratsaldeko bat, errotoplanaz tirada laburra botatzen zuen *El País Vasco*. Falta zena, euskaltzale izan zitekeen bat, eta hauxe sortu zuten arratsaldekoa erosi eta Rikardo Leizaolak (Jesus Mariaren anaiak) okasioko makina azkarragoa Alemaniatik ekarri, dirua don Pio Montoyak jarri, eta honen erakundea Aitzol lagunari proposatu zionean. Lanean hasi zirenerako inguratu zitzaizkien bere lagun naturalak, EAJtarrak, bai Tolosakoak eta baita Donostiako Barriolatarrak eta beste ere, noski, zeren eta Alderdiak Bilbon egiten zuten *Euzkadi* iristen zen Donostiara, baina Errepublikaren zain zeuden abertzaleak Donostia indartu nahi zuten... Hemen bi apezek tinko eutsi zien erasoari, egunkari euskaltzalea, eta abertzalea ere, nahi zuten, baina politikaren gorabeheretatik kanpora.

Eta hala jokatu ere egin zuten gero, hilabete batzuk barru, Errepublika 1931.go apirilaren 14ean etorri zenean.

### **Euskaltzaleak**

“Euskaltzaleak” elkargoa ez zen, askotan usten den bezala, Aitzolek sortua izan. Arrasaten jaio zen, herri honen tradizioan, euskararen defentsan, 1927an, Aitzol berak bere idazlan batean esaten digun bezala, eta gero herriz herri Zumarragan (1929) eta Andoainen, Salinas de Leniz, Zaldibia, Gasteiz, Donostian (1930), Erreterria, Segura, Irunen (1931), Azpeitian eta beste, herriz herri, bazarrekin eta Aitzolen buru argi eta lanek sendotuta. Ez da erakunde “politi-



koa”, honek behin eta berriz dionez; apez bezala arerioek asmo iraultzaile eta gaizto hau aurpegiratzen badiote ere; “nazionalismo politikoak ere euskal kultura indartu nahi du”, hau hala da, aitortzen du, baina hor mugatzen da apezaren “politika”.

Dagoeneko apuntatzen dute, bai, maltzurrek!

Bestalde, euskara maite du, baina hemen ere ez da hizkuntzalari, teknikari, bezala, bere herriaren hizkuntza oso eta bete bezala baizik.

Eta alor honetan hizkuntzak berez dituen kultur-mailen fenomenoarekin aurkitzen da. Bertsolaritza eta poesia idatzia bi mundu dira, don Manuel Lekuonagandik ikasten duen bezala. “Aitzol” eta “Lizardi” konturatzen dira ongi hizkuntza batu baten beharraz, aurretik Azkue, Arana, Campi3n eta Broussain konturatu ziren bezala, eta biak eskatzen dute egunkari euskaldun bat ere! Kulturaren bideak, bide landuak, arazoak sortzen datoz, noski, baina soluzioak biltzen dizkie.

Hala antolatzen ditu Aitzolek, bertsolarien lehiaketekin batera, “Eusko Olerti Egunak”.

## **Belaunaldiak**

Jokin Zaitegi izan zen Aitzolek prestatutako Olerti Egunetako bat irabazi zuena, eta badu zer esanik belunaldiaren gai honetaz. Egindako azterketa batean bere buruari galdetzen dio: “Ba ote da ‘Aitzolen belaunaldia’ izenda genezakeenik?”

Eta euskal literaturako belaunaldien zerrenda baliotsu bat egiten du. Berak 1950tan egin zuen lehen aleko *Euzko-Gogorako*: Aitzolen belunaldiko bezala joango lirateke Aitzolek berak sortutako Olerti Egunean irabazi zutenek: Lauaxeta (1930), Lizardi (1931), Loramendi (1932), Patxi Etxeberría (1933), Zaitegi (1934), Jauregi (1935), eta Otamendi (1936); hauekin batera: Orixe, Lekuona anaiak, Tapia-Perurena, Iakakortsaxarena, Loidi, Erkiaga, Gaztelu, Onaindia, Enbeita, Zugasti, Arozena, Labaien, Pagadizabal, Urkidi, Ametzaga, Barren-soro, Arizubieta eta beste; eta aipatzen ditu beste izen batzu beste maila batean, eta erdaraz idazten zutenak ere aipatzen, adina kontun hartuz, nonbait. Gero aipatzen ditu, hurrengo belaunaldi euskalduneko bezala: Monzon, Ibiñagabeitia, Aurre-Apraz.

Hemen, giroko zerbait aipatzearren: Izan zituzten Orixe eta Aitzolen artean, diferentzia batzuk. Hark erantzun izan zion, noizpait, bera saritu ezaren erantzutea, egiatan hala gertatu ez bazen ere, argitu izan den bezala.

### **Aitzol eta gizartezkoa**

Hernandorenak hitz egin zidan gai honetaz. Kezkatzen zuen, bai, Aitzol arazo sozialak, eta parte hartu zuen Donostian Errepublikara garaian Alberto Onaindiarekin batera hitzaldi publikoetan. Idatzita geratu dira bere kazetaritzako lanetan ardura hauek. Eskuindarrek, *La Constancia* egunkariak bereziki, asmo guztiak bere nahikarietara moldau zizkien, noski.

Oso labur esateko, puntu hauek adierazten dute nolabait Aitzolen garaia.

## HIRU ALDIZ IKUSI DUT AITZOL

Tolosa, 1996-X-17

Xabier Iratzeder

I.—Lehen aldia hogoi-ta hamalauan ziteken; Espainiako gerla has aintzin, bi urte lehenago.

*Aitzol*, Ariztimuño apeza ikusi nuen *Donibane*-ko karrika-nausian iraganki, xuri-gorri-ferde xingolez apaindu Gipuzkoar gazte andana batek inguratua.

Ez nituen orduan hamalau urte baizik; eta banago ez ote nuen hori izan: ene bihotzeko euskal-ametsen goizargi zirrinta.

Etxeko leihotik beha nindagokioten; eta gero, karrikaraino jauntsirik, heien ondotik joan nintzen, “Gure Etxea” deitu antzerki-tokirat.

Han *Aitzol*-ek izan zuen lehen hitza, hitz sarkor eta beroa: “Lapurdiko, Benabarreko ta Ziberoko euskal-anaieri bihotz-bihotzetik agur!”.

Paristarrez, Inglesez eta nork-daki-nungotarrez itoa zen, uda egun hoitan, *Donibane*. Egina nuen ordukotz ene bizi-bidearen hautua: Euskal-Herria salbatu behar-eta, ez nintzen gerla-gizonen artean sartuko, ez eta politikari-eleketarien artean ere. Joanen nintzen apezterat, geroko euskal-anaien argiratzaille.

— Ez zuen *Aitzol*-ek lehen aldia *Hendaia*-ko zubitik hunat iragaiten zela.

Mila bederatzi ehun eta hogoi-ta hamekan apez bakar bat izan zuen *Segura Toledo*-ko Kardinaleak, muga iragaiten, lagun; eta, apez hura: *Aitzol* (\*).

*Nunbeitik jakina zuen, Gobernamentuak ohildurik, Gipuzkoan barna zela ihesi joatekoa. Ez zuen nahi izan Eliza Sainduko Kardinale bat euskal-lurrean iragan zadin, gehiagoko jauspene eta maltasunik gabe.*

*Ezaguna zuen jadanik Segura* jaun apezpikua; ikusia zuen *Barzelona*-ko Misione-biltzar handian. Ez zituzten denetan *Aitzol*-ek eta harek ikus-molde berak; bainan Espainiatik ohildu hori gaizki-erabili Eliza Saindua bera baitzitzaion, ez zuen nahi hola denek utzia urrundu zadin. Zubiaren iragaiteko, joan zitzaion laguntzaile; eta biharamun goizean berak zuen Meza emaiten lagundu.

---

(\*) Ikus: Oharra I, p. 413.

Hendaiatik norapeit joan behar eta, *Beloke*-ko fraideri zioten Kardinaliak aterbe eskatu. Ez zuen orduan, *Ariztimuño* apezak asmatuko: bera ere, bortz urteen buruan, ihes-leku bereratz zela joan beharra.

II.—Hogoi-ta hamabortzeko irailaren 22-an, bigarren aldikotz nuen *Ariztimuño* ikusi eta entzun.

*Atharratze*-n bilduak ziren zazpi Euskal-Herrietako Euskaltzaleak. Hamabortz urte nituen eta gogo bihotzetan egon zaizkit egun hartan ikusiak, ikasiak, entzunak.

Bazkaltiarren esku-zartek xuti-arazi zuten *Aitzol*. Urrian agertu “Aintzina”-k aipatu zituen erdaraz haren erranak; huna, gure euskalkirat itzulirik, nolatsukoak izan ziren:

“Euskal-anaiak doi bat zarrapaturik ere, nahi dut argi eta garbi mintzatu, gauzak diren bezala aipatuz; ez naiz-eta gezurka aitzeko *Atharratze*-rat etorria.

Hogoi-ta hamabortz urte bada Euskaltzaleak biltzen direla. Zertarat heldu izan dira? Euskarak bizirik irauten du, bai edo ez? Zabaldut ote da ala galdu, hogoi-ta hamabortz urte huntan? Norat goazi, frantses-espainol uholdearen aurka, ez badugu urteko bazkari handi hau baizik ezartzen?

Ez da harat-hunatik; hola ibiliz, hurbiltzen ari gizaio hau entzungo den egunari: “Kantabria-ko itsas-bazterrean bazen aspaldian gizalde bat, Euskaldunen gizaldea deitua; bainan irauten jakin ez duena.” Hortaratu nahi ote dugu? Segur ezetz; haatik, ohartuz ala ez, bagoazi leize zilorat.

Zuk aipatu “odolaren mintzoa” entzuten dugu, *Oxobi* maitea; eta *Eizagirre*-k erran bezala, gure Herria maite dugu, bainan bihotzeko mintzoa ez aski: aipatu behar da egun guzitako bizia, egunean eguneko ogia. Ogi hori Erdaldunen ganik behar balin badugu eskuratu, gure geroko bizia kanpotarren ganik igurikatzen balin badugu, nolaz ote ez da gure euskalgora, gure euskal-gogoa urtuko, izaite gabeko amets hat bezala. Euskalzaletasuna salbatzeko, behar da Euskal-Herria salbatu; ez hitzaldi ederrekin, bainan bai gure Euskal-Herrian lan-bideak hobekituz eta bizi-ahalak zabalagotuz.

Eskuinekoak eta ezkerrekoak lot ditela denak salba-bide horri, bi eskuak Euskal-Herriko anai-eskuak bezale josiak.

Politika guziak baino gorago, hasiko direnean Euskaldun guziak elgarri hurbilago, elgarri josiago bizitzen, -eta auzoko erdal-jenderi ezinbertzez hain menpetuak gaketuak izanen ez direnean, errexago izanen da orduan euskal-odolaren mintzoa entzutea bai-eta mintzaira ta ohidurak salbatzea.”

Bururatzean, *Aitzol*-ek dei bat egiten diote gazteeri eta barkatu galdetzen, euskara bizi-arazteko bideak, berak bezala ikusten ez luzketeneri.

— Atharratzeko Euskalzaleen Biltzar hortan ikusi eta entzunak, enetzat ezin ahantzizkoak; pertsutan ere aipatu gabe ezin utziak:

Dena begi zagon mutiko bat nintzen...  
 Orroit naiz eguerdi batez, Atharratzen,  
 Gizon horiek ikusirik, aditurik, miretsirik:  
 Zer gizonak!...  
 Argi zabaltzerik ez da hain argi eta su,  
 Ez itsaso uhainik hain tiraintsu,  
 Ez eta euskal-mendirik hain gorarik,  
 Nola baitziren gizon horiek... gizon!  
 Ikusten ditut oraino xutitzen,  
 Mintzatzen, kantatzen  
 Aitzol, Eizagirre eta Monzon.

Ikusten ditut heien behakoak,  
 Aditzen heien mintzoak, heien kantu beroak.  
*Aitzol!* barneko suak jana,  
 Euskal-arimari osoki emana.  
*Aitzol* eta *Eizagirre*,  
 Besoak zabal ta bihotzak zenbategi zabalagoak,  
 Mendiz hunaindikojendeari  
 Oihuz eta kantuz ari.

**III.**—Hirugarren eta azken aldian *Aitzol* ikusi dutalarik, *Beloke*-ko hai-zondoan itzalean izan da; eta, ordukotz, hamasei urte nituen.

Fraidetu osaba-apezaren ikusterat etorria nintzen eta ereman ninduen, eleketa ariz, gazteen pilota-plazaraino. Bazen hor galtza beltzez eta atorra xuriz jauntzi gizon bat, pirripitan ibiltzen ikasten iduri zuena. Gizon hori: *Aitzol* apezaz.

Ez nuen harekin solasik egin. *Donibane*-ko karrikan iragaiten eta *Atharratze*-ko Biltzarrean mintzatzen urrundik ikusirik ere ez nuen, egia erran, kasik ezagutzen.

Geroztik dut jakin, sortzez Tolosarra zela eta hamabi haurridetarik hamekagarrena. *Comillas*-eko apezgaitegirat joan zen hamahiru urtetan eta, mila bederatzi ehun ta hemeretziari, *Gasteiz*-ekorat. Apezte-eta, hogoi-ta bitik bederatziraino su eta kar aitu zen Misionen alde, bai idazten, bai biltzarreak antolatzen.

Bularretarik odola emaiteraino eriturik, bere apez bizimodua aldatu behar izan zuen. Orduan zuen *Pio Montoya*-rekin "El Día" egunkaria sor-arazi eta euskarazko lanak sustatu; orduan ere zen hasi euskal gazteak biltzen, argitzen, sugartzen.

— Horiek hola, horra bet-betan Espainiako gerla. Uztailaren 27-an *Requete*-ak *Beasain*-en eta *Oiarzun*-en sartzen dire; 28-an *Donostia*-n nausitzen.

Aboztuaren 2-an Frantzia alderat doa *Benegas*-ekin *Aitzol*, 14-an *Hendaia*-tik *Echalar*-rerat, *Sara*-ko auzapezarekin egin-ahalak egin nahiz tirokatzeak eta elgar-hiltzeak geldi ditezten. Etsaiaren aztaparretarat erortzer izan ondoan, *Benegas*-ekin *Beloque*-ko aterberat joanen da eta, irailaren 9-tik urriaren 13-raino, hango bakean biziko bertze Gipuzkoar iheslari zenbeiten artean.

Orduko argazki batean ikusten ahal dire, aita Abadearen eskuinean, urrunagotik hurbilenerat:

- Jose-Maria *Benegas*, abogadoa,
- Jose *Ariztimuño-Aitzol*,
- Juan-Migel *Sansinenea*;

aita Abade Jean-Gabriel *Hondet* Hendaiaaren ezkerrean:

- Antonio *Labayen* (haren gibeledko biak?),
- Jose-Maria *Barandiaran*,
- Benito *Begiriztain* (orduan *Beloque*-n bizi zena),
- D. Ramon *Laborda*.

— Hilabete oso batez eta lau egunez egona da *Aitzol* fraiden aterbe hortan.

Huna hemen, euskararat itzulirik, handik *Pio Montoya*-ri idatzi diozkan bi azken eskutitzetarik zenbeit lerro:

“Etorri berria naiz bake-leku huntarat, zenbeit egun iragan-eta gure aberzale iheslarientzat laguntza aurkitu ta antolatu beharrez. Ipar-aldeko Euskal-Herri hunek ez du euskal-anaitasunik.

Karlisten eta Abertzaleen artean elgartzeko solasak zertan ote diren jakiten baduzu, eskertuko nitzazuke bi hitz igortzea.

... Orai da heien artean bakea egiteko ordua ...

Hitz hau idazten hasterakoan, etorri zaiku ametsetako gure *Laborda* ... Errana dio aita Abadeak egon ahalko dela apur bat *Beloque*-n...

Erraiten du *Laborda*-k ez dela berritz *Donostiarat* itzuliko, *Mola* ikusten ez dueno “*Poxpolin*”-en aintzindari.

Ea etorriko ote zaren egun batez ikusterat eta gurekin mintzatzerat.”

Aitzol

(36-eko irailaren 11-an)

Bi egunen buruan:

Gare et Postes : Urt  
Télégr. | Labastide-Clairence  
Téléph.

1736 ng-x garin-6 an

Lafitte up an jaman  
Mstanken.

A gur adiskide;

Ornen darumustikju pake sam  
duan gure egnak porantez pis-  
ka bat ikusi naink.

Aruntiki. Cuskaldunen coraonak  
egnetik; egnora ari dira itxur-  
ken eta beltzago arpezia orakuy-  
ten.-

Barke zaidazu Mstanken nui  
katutakoa gogorusten.- i Tlatzi  
al-dion? aita Dionos Vaudhoni  
Pauj'orat? - Ezin baigora sekun-  
du guzian unen, Belloc'en egon,  
eta zor baitetan pusuatu bear de-  
gu un'orantzeran begiratuaz.-  
L'euengor ekeini zizkidarum

mozak aiske nora dijoskit eta  
al-bazenuke beste batzuk erin-  
teko-al eskaten dizut.-

i Ezeren beririk bai-al-dezu?  
Einen berri-onen. gura gora koma  
gaur on gutxi dir gorka gu, oraingo  
beintat.-

Barke ezuten diskidulan la-  
nengatik.-

Esker auzi -  
Zel' bantun

Christiano fufria

“Agur:

Eskerrak dauzkitzut, bakeratzeko solasen berri emanik. Nik ere zuk bezala daukat: apezpikuekin gezurka ari direla militarrek, eta ez dezakegu heien ganik deusik igurika.

Badakit ez dezakegula azkatasun ondar ttipienik ere igurika. Bainan ekarria banintzen ni militarreri hautsi-mautsi zerbeit eskatzerat, hori zen beldur bainintzen eta beldur bainaiz euskal-gudarietan sartu ziren gure gazteentzat.

(...) *Toulouse*-ko irratiak jakin-arazi dauku: *Donostia* militarren eskuetarat erori dela goizeko oren batean. Harritzen gaituena, haatik: ihardokitzerik gabe erori dela etsaien eskuetarat.

(...) Idazten dit *Lafitte*-k egin-ahalak egin dituela ihesi etorri abertzaleen alde; eta iduri du ondorio onik ekarriko dutela (Baiona-ko) Apezpikuaren eta *Ybarnegaray*-en urratsek.

Begiraleak ere, hemengo “Euskalerrizale“ taldeko emaztekiak hasi dira ere mugitzen eta gureak laguntzen.

Agur, bihotzez bat.

(34-eko irailaren 11-an)

Hirugarren eskutitza, urriaren 6-ekoa:

Lafitte apaiz jaunari  
Ustaritzen

Agur, adizkide:

Emen daramazkigu pake sainduan gure egunak, prantzez pizka bat ikasi nairik.

Aruntzko Euskaldunen arazoak egunetik egunera ari dira itxusitzen eta beltzago arpegia erakusten.

Barka zaidazu Ustaritzen mintzatutakoa gogoraztea.—Idatzi al-diozu aita *Piarres Lhande*-ri *Parise*-rat?—Ezin baigera sekula guzian emen *Belloc*-en egon; eta zerbaitetan pentsatu bear degu, aurrerantzera begiraturaz.

Lenengoz eskeñi zizkidazun mezak azkenera dijoazkit: eta, al bazinu, nik beste batzuek erraitekoak eskatzen dizut.

Ezer-en berririk bai al dezu? Emen berri onen goseak gera; baña gauz gutxi dagerkigu, oraingoaz beintzat.

Barka ezartzen dizkizudan lanen gatik.

Esker anitz

*Jel* baitan.

Ariztimuño



IV.-Ordukoa ditake *Lafitte* eta *Aitzol* apezek *Uztaritze*-n izan zuten azken elgar-hizketa. Ene "Orroitzapen purruketan" aipatua dutan bezala, *Lafitte*-k berak kondatua daut, hirurogoi-ta hemeretzi-ko aboziaren 25-an:

"Beloketik, egun batez, etorri zen *Ariztimuño* nerekin mintzatzerat. Erran zautan: "**Horra, Espainiarat noa. Ez ditut gazte hoik guziak hola utzi nahi; uste dut harat itzultzea dela nere eginbidea... Harat noa.**"

Erran nion, orduan: "Zuk ikus! Agian zerbeit onik egin ahalko duzula! Badakizu zer duzun irriskatzen." Hori bazakien: **Banoa, gau huntan, «Galerna» untzian... Otoitz eginen duzu neretzat?**" - "Bai otoitz eginen dut zuretzat. Ez da, egia erran, lehen aldia izanen..." "**Ederki, bainan egiten duzu zinez otoitz?**" - "Bai, otoitz egiten dut". "**Eta zer diozu Jainkoari galdegiten?**" - "Hau diot beti: egin bedi zure nahia". "**Hau gizona! Ez duzu, beraz, deusik galdatzen!**" *Eta irriz hasi zen.*

Nik orduan berriz: "Eta zuk zer diozu, otoitz egitean?" *Ariztimuño*-k neri: "**Nik Santa Teresa-k bezala dut otoitz egiten**". - "Zer egiten zuen ba Santa Teresa-k?" "**Hau erraiten zuen: Bai, Jauna, zure nahia egin bedi; bainan zurea nerea izan dadila**". Berriz ere irriz.

"Ederki, egin zion *Lafitte*-k aintzinat, antola zaite zure gisan; bainan... iduri zait ez litakela hain gaizki, Haren nahia egina balitz". *Aitzol*-en azken hitza: "**Gauden hortan: zure otoitza nahikoa zait; aski duzu hola egitea**".

*Horiek hola, elgarri "ikus arte" erran dugu; eta joan da...* (\*)

— *Aitzol*-en azken eskutitza urriaren 15-ekoa da (itsasoz joan aintzin, bi egun; *Pio Montoya*-ri idatzia):

"Enehun Beloke-rat itzultzean, erran didate etorri zinela igandean ene ikusterat.

... Ez naiz gehiago Beloke-rat itzuliko.

... Dударik gabe, gure herritarreri egon-toki aurkitzeko egiten ditudan indar-gutiko egin-ahalak eta harat-hunatak, badazkite militarrek beren salata-rieri esker. Badauzkate heiek politika-urratsak direla.

... Zenbeit egunez (*Baiona*-ko) hotel batean nago; bainan ez hitzik igor, laster naiz hemendik airatuko. Ez dakit oraino norat. Beharba *Bilbo*-ra, zer-berrietako on balin banaiz..."

Goizean Meza *Ziburu*-ko elizan emanik, eta azken eskutitz hau igorririk, *Baiona*-rat joan zen "Galerna" itsas untzirat, *Pasai* aldean hartua zen eta, 17-18-ko gau beltzean, *Hernani*-ko hil-harrietan tirokatua.

(\*) Ikus: Oharra II, pp. 14-15.

\* \* \*

Eta, bururatzeko, huna orduko ene pertsu bat:

... Ikusi dut *Aitzol* fraiden artean ameska... Eta joan da, bere gazteen azken hil-deiak entzunik; Joan da eta hil... heien odolean bere odola emanik, Euskal-errautsean bertzen amodioz auhenkatuz: *Barka!*

## OHARRA I

“El 16 de junio de 1931, en la tarde, Aitzol sale para la frontera de Irún; supo por Aldasoro, Gobernador de Guipúzcoa, que el Cardenal Primado, Sr. Segura, salía exilado por orden del Gobierno, y llegaría a Irún al atardecer. Ariztimuño había conocido al Cardenal Segura en el Congreso Nacional de Misiones en Barcelona, quiso acompañarlo en aquel trance. Después de una larguísima espera, ya de madrugada, llega el auto policial, y tras los guardias que lo custodian aparece la aceitunada y destroncada figura del cardenal... Sus cansinos ojos miran aturcidos y se cruzan con los de Aitzol. Ambos avanzan al encuentro. Primera sonrisa en la fláccida faz del Sr. Cardenal trenzada con sus primeras palabras... —¿Cómo Ud., don José, aquí?... —Sí, mi cardenal, le estaba esperando para ayudarlo en lo que pueda en estos momentos de dura prueba... En Hendaya tengo en el convento de las Siervas una hermana, y es allí donde pensaba conducirle para que repose—. En el convento, el Cardenal desea celebrar la misa, que es ayudado por Aitzol, y tras la misa, el adiós definitivo. No se volverán a ver más en la vida”.

Este era el *saeerdote* Ariztimuño, quien dio más de una prueba de su vocación y de su entrega a la labor sacerdotal.

(AITZOL-en idazlan guziak I, p. 44)

## OHARRA II

### Hogoi-ta hamaseian

*Lafit* apezak, uztailleko lehen egunetan, *Jakes Mestelan*-ekin, sor-arazi zuen “*Menditarrak*” deitu mutiko-taldea Horien helburua: euskal-mendien ezagutzea eta euskal-dungoan aintzinatzea.

Zortzi lagun bildu ginen orotarat. Gure oihal-etxolak *Eihalarre*-n finkatu ginituen, hortik *Arnegi* alderat bai eta *Artxilondoraino* ibil-aldiak egiteko. Laruzko untzi bat liburuz betea ekarri zuen lehen egunean, eta ez zuen azken egunean, liburu bakar bat ere irakurri ahal izan.

Han ginelarik hasi zen Espainiako gerla; eta ginauden tokiraino etorri zitzaizkon egun batez bi jaun: *Aizpun* Napparokoa eta *Louis Inchauspe* Garazikoa.

Euskal-mendietarik Uztaritzeko zelaierat jautsi orduko, izan zuen zer egin eta zertaz kezka.

Napartarren eta Gipuzko-Bizkaitarren arteko har-emanen sustatzerat bermatu da.

*Ariztimuño*, *Aitzol* famatua, etorri zitzaion ere lagun zonbeitekin mintzatzerat: haizu ote zitzaioten Espainiaren aurka, Euskal-Herriaren eskubideen zaintzea?

Erran zioten ez zela errex ihardestea; irakurri zioten, haatik, liburu batean noiz eta nola zitaken gerla bat zuzen, bai eta zer zion hortaz *San Tomas* Akinakoak.

Aitortu zioten ez zuela berak arrunt argi ikusten; baina hek joan ziren haren gelatik, erranez: orai argituak zirela, bazakitela orai zer egin, *San Tomaseri* jarraikiko zitzaioleta: gorriekin joanen zirela, ez gorri zirelakotz, baina, tokian tokiko, helburu berak zaintzen zituztelakotz.

Handik laster, Belokerat etorri da *Aitzol* ihesi. Zenbeit ilabete egon zen hemen, mendiz bertzaldeko berrien entzunka. Azkenean joan zitzaion berriz *Lafit*-i, erranez: berak berotu zituela gazte abertzaleak, eta ez zagokela hemen, hek gerlako hil-irriskuetan zabiltzalarik.

Huna bien arteko azken solas-aldia, *Lafit*-ek berak neri, erdaraz, kondatua (28/8/79).

“Abiatzean, erran zautan: «Otoitz egiten duzu enetzat?» - «Bai, otoitz egiten dut zuretzat. Ez da, funtsean, lehen aldia izanen: otoitz egiten dut maiz zuretzat.» *Aitzol*-ek orduan: «Otoitz egiten duzu, baina zinez eta egiazki?» «Bai, bai, otoitz egiten dut.» *Aitzol*-ek berriz: «Eta zer galdatzen diozu Jainkoari?» - «Nik erraiten diot beti: egin bedi zure nahia.» «Ai! gaizo abila! ez duzu beraz deusik galdatzen... (biek irri).»

*Lafit* apezak: «Eta zuk nola egiten duzu, otoitzean ari zarelarik?» «Oi! nik, ihardetsi zion bertzeak, otoitz egiten dut *Santa Teresa* handiak bezala.» - «Zer egiten zuen *Santa Teresa*-k?» «Erraiten zuen: bai, Jauna, egin bedi zure nahia, baina zure nahia nerea izan bedi (berriz ere bieki irri).»

Horiek hola, *Lafit*-ek: «Ederki, antola zaite; baina nik pentsatzen dut ez dugula Jainkoaren nahia ahanzten ahal. Ez dakigu baduenez gure otoitzaren halako beharrik. Nik ez dut bertze deusik galdatzen, Jainkoari mintzo naizelarik-Uste dut ez litakela hain gaizki haren nahia egina balitz. Guk dugu haren nahi hori tratatzen: erran daukularik zer ginuen egitekoa, eman dauku-eta, on-

dikotz, nahi dugunaren egiteko ahala, ahal harrigarria...» «Ondo, ondo: zure otoitza nahikoa izanen dut: otoitz egizu horrela.»»

Hortan joan zen **Aitzol** eta «**Galerna**» itsas-untzian sartu. Hartua izan zen eta, **Hernani**-ko hil-harrietan, titokatua.

1985-eko *Otoitzlari*-116etik

### OHARRA III

#### BARKA

España hortan izan da segur asko bitxikeri:

Horra nun zaikun etorri

Euskadirat Galtxagorri

Jainkoaren amodioz jazartzerat apezeri.

Berriki apez suhar bat hil beharrez zeramaten;

Hil-harrietan tiroka odolez estali zuten.

Ifernuan zer irriak orduan egin dituzten.

Apez gaixoak begiak, suharrik, zerurat dauzka,

Gizon bat doa lasterka

Bularrak zilatzen diozka:

Jaunak bezala hiltzean dio: "Jainkoa, oi, barka!"

Apez haren kar sailduak lurak ikusi balitu

Bai eta zer gizon gaitzaz mundua zuten gabetu,

Lurak berak hiltzaileak, segur, zituzken suntsitu.

Nor zen? Zer egin ote du? maitatu herri zaharra

Eta langilez leherra

Itzularazi ongira.

Nor zen? Apez suharrena: Aitzol, Aitzol kartsu hura.

Garrak ezeztatu nahiz bihotza dute zilatu;

Bainan gure bihotzerat gar hek zaizkigu airatu.

Zure heriotzak, Aitzol, fruituak emanen ditu.

"Biziaren olerkia" p. 25

### OHARRA IV

#### ZORIGAITZEZKO EUSKADI

(airea: Ara nun diran...)

Euskal-Herriko zeru ez-tian, hedoi beltzak bildu dira;

Haitzen artetik izigarriko sistutan ari da herra;

Odol berozko iturburu bat doa menditik behera...

Auhenkatzetik nehoiz ez geldi,  
Zorigaitzezko Euskadi!...

Lanerat goizik gizon gaztea abiatu da kantari;  
Bainan anaia, ustegabeen, tiroka zaio jazarri:  
Oihu samin bat botatuz kolpez zauriturik da erori.

Auhenkatzetik nehoiz ez geldi,  
Zorigaitzezko Euskadi!...

Bere haurñoa salbatu nahiz, ihesi joan da joan ama;  
Laster mendiez alde huntarat besoetan baderama:  
Zori oinazen artetik doa. Gaixo amaren marruma!

Auhenkatzetik nehoiz ez geldi,  
Zorigaitzezko Euskadi!...

Zelaian bada harri meta bat, erditik kea dario...  
Jabe zaharrak, hurbil jarririk, nigarrez behatzen dio.  
Zenbatek dute aiten egoitzer tristerik erran adio!

Auhenkatzetik nehoiz ez geldi,  
Zorigaitzezko Euskadi!...

Amodiozko Jainkoarentzat hori egin omen dute.  
Jainkoarentzat bazterrak erre eta apezak hil ote?...  
Zu, otoi, Jauna, gure herriaz zerutik urrikal zite.

Auhenkatzetik nehoiz ez geldi,  
Zorigaitzezko Euskadi!...

Berritz ohiko irrintzin hura badoala mendiz mendi.  
Gure herrian burrunba tzarra ez dadin geiago adi:  
Ezin hilezko gure Euskadi berritz ere atzar bedi;

Jainkoa lagun, bai berpitz hadi,  
Arbaso gaitzen Euskadi!

Larresoron, ...-3-3-37.

“Biziaren olerkia” p. 26



## AITZOLEN KAZETARITZA

Tolosa, 1996-X-18

Xabier Altzibar

Aitzolek bere pentsabide, asmo eta ekintzak kazetalanen bidez agertarazi eta zabaldu zituen, batez ere *El Día* eta *Euzkadi* egunkarietan. Lan honetan kazetalan horiek aztertuko ditut, orokorki, batez ere euskal kultura eta gizarte-ari buruzko Aitzolen pentsaera, gai nagusiak, iritziak, gidari eta eragile moduan erakutsitako jokoera, eta, azkenik, haren kazetari idazkera.

Aitzolen artikuluak batuta daude *Obras Completas-Idazlan Guztiak* bildumako liburukietan (Erein, 1987), bereziki 5 eta 6.etan, hots, *Impulsor del Renacimiento Cultural Vasco y Social Cristiano-Euskal Kultura Pizkundearen eta Kristau Gizartegintzaren Eragile* (I) eta (II). Aitzolen idazlan ustez guztien berrargitalpen hau, orain ia hamar urte talde batek burutua, lan txalogarria eta eskertzekoa da, haren obraren azterketa erretzen baitu. Aitzolen artikuluen aipamena (izenburua, egunkaria, data) parentesi artean jarriko dut, liburuki horietatik hartuta.

Aipatu beharrekoak dira zenbait ikerlan: M. Ugaldereen biografia (“Biografía de Aitzol”, *Obras Completas-Idazlan Guztiak*, I. lib.); “Aitzol” en su tiempo (J. Insausti, X. Azurmendi, J. Kortazar, L. Otaegi, J. R. Scheifler-en artikulua), Fundación Sabino Arana, 1990; L. Otaegiren *Lizardiren poetika* (Erein, 1994), 94-121. or. Argitaraberria da I. Aranbarri-K. Izagirrerren *Gerraurreko literatur kritika* (Labayru Ikastegia-Amorebieta-Etxanoko Udala, 1996), Tolosako hitzaldiko testua berridazten ari naizen une honetan.

### Pizkundera, Aitzol eta Euskaltzaleak

Jose Ariztimuño Olaso “Aitzol” (Tolosa, 1896-Hernani, 1936) *Pizkundera* deritzon mugimendu zabalaren erpinean kokatzen da. *Pizkundera*z mintzatzean euskara, euskal literatura eta kulturaren zuzpertzeari abertzaletasunarekin batera-ari gara. Pizkundera aspalditik zetorren bidean: 1876an foruak galdu ondoren, “Zazpiak Bat” eta “Ama Euskara”-ren aldeko sugarra piztu zenetik Euskal Besta edo Lore Jokoen zuzia Iparraldetik Hegoaldera igaro zen. Hots, alde batetik, Asociación Euskara de Navarra eta *Revista Euskararen*, hau da, Kan-

pion eta abarren eskuetara; bestetik, Donostiara, Manterolarenetara. Honek Lore Jokoei segida eman eta *Cancionero Basco* literatur bilduma eta *Euskal-Erria* aldizkaria sortu zituen, 38 urtez pizkundearen suari isiotuta irunaraziz. Bizkaia, Araba, Nafarroa eta Iparraldean hainbat elkarte, aldizkari eta langile bilduko zituen pizkundeak: Iparraldean *Eskualduna* astekaria, *Gure Herria* eta Eskualzaleen Biltzarra; Nafarroan Euskararen Adiskideak. *Euskal-Erria* aldizkariaren ondoren *Euskal Esnalea* (1908-1911, 1911-1931) eta *Euskal Erriaren Alde* (1911-1931) etorriko dira.

Bestalde, Sabin Aranaren abertzaletasunak euskara eta euskal literaturari bultzada handia eman zion: *Euzkadi* egunkarian euskarazko kazetalaran agertarazi zituzten Kirikiñok-eta, euskararen aldeko kanpainak egin, kultur aldizkariak (*Euzko-Deia*, *Hermes*, *Euzkerea*) eta euskal teatroa bultzatu. Euskaltzaindia bera pizkundetik sortutako adarretariko bat izan zen, Eusko Ikaskuntza eta beste kultur elkarte batzuekin batera, eta haren zuzendaria, R. M. Azkue, erraldoi handia, hizkuntzaren arloan bereziki, nahiz ez hor bakarrik.

Euskal pizkundearen arbola frututsua adar eta aldaska ugariduna da, beraz, Euskal Herriko zazpi probintzietan hedatua, hazaldiak bata bestearen ondoren elikatuko dituena. Hona bultzagile erraldoi batzuk, eta euskal kultura nahiz literaturako aldizkari oso garrantzitsuak. Horra euskara eta "Zazpiak Bat" goiburua nagusi legez jarrita eta euskal literatura kulturaren esparruan lan ixilean. Hara belaunaldi desberdinak eta tarteko katenbegiak: zaharragoen artean Arrese Beitia, poeta omendua (El Día, 1930-XI-21); tartean Kirikiño, G. Mujika, Zamarripa...

Hortik sortuko da Euskaltzaleak taldea 1927an, Primo de Riveraren diktadurapean, Lizardi duela zuzendari. Hortik sortuko da Errepublika garaiko *Pizkundera* edo "Aitzolen Belaunaldia". Olertian Lizardi, Orixe, Lauaxeta; antzertian A. M. Labaien; kazetaritzan *Argia* astekaria eta *Euzkadi*, *El Día* eta *La Voz de Navarra* euskarazko artikulatuak; kultur aldizkariaren artean *Yakintza*, Aitzolen eraginpean sorturikoa; ikerketan Barandiaran eta Eusko Folklore taldea, eta, herri-literaturarenean, M. Lekuona bere *Literatura Oral Euskérica* liburuarekin (1935). (Aitzolek Barandiaran eta Lekuona Gasteizko seminarioan ezagutu zituen).

IBILBIDE LUZEA DAGO, BERAZ, AITZOL BAINO LEHEN. Baina diktaduraren ondoren, Errepublika garaian, giroa euskararen alde lan egiteko egokia bihurtzen ari zen, gazte askok eta jakintsu, irakasle eta idazle askok ekin zitoten euskal kulturaren aldeko lanari, aurreko urte latzagoetan ereindako haziaren fruituak bilduz. 1936ko gerrak Aitzol hil zuen eta Aitzolekin batera euskara eta euskalduntasuna ere ia-ia.

Aitzol baino lehen, hor ziharduen Euskaltzaleak taldeak, Lizardirekin, artean Aitzol misioak antolatze eta bultzatze lanetan zebilela. Gazteak ziren eta Kirikiñoren ikasleak: "Son los discípulos de Kirikiño, son los denodados "idazles"", honela aurkeztu zituen zuen Aitzolek (El Día, 1930-II-19). Diktadura-



pean Euskeraren Eguna antolatu zuten Arrasaten, arrakasta handiz: hori izan zen mugimenduaren abiapuntua. 1927ko Arrasateko ospakizun horretan Eusko Ikaskuntzak, Euskaltzaindiak eta aldizkari eta egunkarietako ordezkariak parte hartu zuten. 1929an Zumarragan ospatuko da Euskeraren Eguna. Gero Euskal Umearen Eguna etorriko da, haurrak euskalduntzeko, euskararen munduan sartzeko -haurtzaindegien beharra aldarrikatuz-, eta Euskaltzaleak-en kanpaina, haurranga hurreratzeko asmoz antolatua eta Seguran ospatua 1930-VI-24an, Txuntxungilloa edo euskal giñola erakutsiz (Euzkadi, 1932-XII-8). Ondoren Emakumearen Omenaldia Euskerari (Euzkadi, 1930-VIII-6) eta abar.

Altzeta, Mendi-Lauta, Aberri, Atarrene, Otarra, Udalamendi, Luzear, Labaien...horiek ziren hasierako Euskaltzaleak taldekoak. Hizlariak, kazetariak eta publizistak ziren. Errepublikaren etorrerak aukera hobea ekarri zuen. Eusko Ikaskuntza kultur erakundearen babestu ziren, egoitza Gipuzkoako Aldundian zutela. Euskararen aldeko ekintzak antolatzen zituzten, propaganda egiten, arlo askotan, baita proselitismoa ere, gurasoak-eta elkartera biltzeko deia zabalduz (Euzkadi, 1931-I-28).

Halako batean Lizardik Aitzolengana jo zuen, Euskaltzaleak eraberritu nahiz: "Ezin genezakek abertzale bidetik jo. Euskeltzaleasunara (sic) jo dezagun" hots egin omen zuen Lizardik (Aitzol, El Día, 1933-III-14). Aitzol bera 1931an agertzen da Euskaltzaleak-en buruzagitzan, dinamika berri bati ekinez, eta, dirudenez, Lizardik markatutako bidetik. Aurrerantzean agintariak gutxiago agertuko dira eta erakundea Donostiatik irten eta zabaltzen da. Aitzolekin Euzko Olerti Eguna ospatzen hasiko da, Euzko Antzerti Eguna (1934), Bertsolari Eguna, Eleberri Eguna (1935), Euskal Idazleen Kongresua, Kirikiño Saria, euskal literatura ikastaroak, umeentzako lehiaketa eta sariketak Santo Tomas egunean etab. Orain ikastolen aldeko ekintzak bezala, orduan euskara eta euskal poesiaren aldeko jaialdiak eta lehiaketak antolatzen eta ospatzen zituzten. Ekintza hauek *Yakintza* aldizkariak bere azken sailean jasotzen zituen. Urteen puruz, Euskaltzaleak bazkun herrikoa izatera iritsi zen, 2000 bazkiderekin. Honen guztiak Aitzol eta Euskaltzaleak euskal kulturaren azpiegitura antolatzen ari izan zirela darakusa.

Bi arlotan, batez ere, egin zuten lan: literaturan eta euskara eskoletan sartzan, hots, elebitasuna ezartzen, umeen liburuak ateratzen, eskolak eraikitzeko dirua biltzen, esate baterako Tolosan (Euzkadi, 1931-II-20). Eusko Ikaskuntzarekin batera jardun zuten antolatzaile lanetan (Euzkadi, 1930-2-19). 1930tik aurrera Euskaltzaleak-ek euskal poesiari lehentasuna emango dio, euskara idatzi edo literarioaren berme gisa (Euzkadi, 1935-VI-2). Bazkunak ez du erakundearen laguntzarik jasotzen, eta horretaz kezkatzen dira, erakunde edo agintariok herriaren ordezkari ez direla erakusten baitie. Urteak aurrera joan ahala arrakasta ezak samintasuna dakarkie (ibid.). Bestalde, Iparraldeko Pizkunde zantzuei gero eta erneago, harremanak estutzen dituzte Euskaltzaleen Biltzarra eta Iparraldeko idazleekin. Aitzolek adiskide min izan zituen Elissalde eta Oxobi (Euzkadi, 1936-VII-11).

Euskaltzaleak taldeak liburu sorta bat argitaratu zuen, “Zabalkundea” bilduma: hor atera ziren Lizardiren *Umezurtz Olerkiak* (1934) eta *Itz-lauz*, A. Kanpionen bi liburu, Altadill-en gazteluei buruzkoa (Euzkadi, 1934-XII-26) eta Thalamas Labandibar-en *Aspectos de la vida profesional vasca* (El Día, 1935-X-9). Proiektu berriak egin zituzten: pastoralak argitaratzekoa (Euzkadi, 1936-IV-19), baita I., II., III. Antzerti Eguneko antzerkiak ere (El Día, 1936-V-15).

Aitzol eta Euskaltzaleak-en ekintza hauetan guztietan helburua euskararen berpizkundea eta berreuskalduntzea zen batez ere: alde batetik literatura bultzatuz; bestetik, irakaskuntzan euskara sartuz. Azken arlo honetan, adibidez, euskararen aldeko maisuak biltzen dituzte elebitasuna bultzatzeko asmoz. Eta badirudi Aitzol bera bizkorregi ez joatearen aldekoa zela eta euskara gogoko gaiak irakasteko nahi zuela (erlijioa, Euskal Herriko Historia eta Geografia) eta gaztelera, aldiz, irakasgai zientifikoetarako.

Aitzol eta Euskaltzaleak-en bidea ez zen politikoa, kulturala baizik. Euskara da Aitzolen kezka nagusia, haren liburu, liburuska eta hainbat eta hainbat kazetalanetan agertzen denez. 1930 inguruan euskararen heriotzaren beldur da:

“A partir del año 1839 comenzó la guerra contra el idioma, cuando precisamente se depusieron las armas de fuego. El plan estratégico para ahogar el euskera se promulgó con la ley del año 1857. Hoy nuestros pasos son graduales, pero acelerados, hacia la tumba del euskera” (Euzkadi, 1930-IX-4).

Aitzol eta Euskaltzaleak-ek kultura maila gorakoan artean egin zuten lan eta bereziki gazte intelektualen artean. Euzko Pizkundea elkarteak sortu zuten: hor ari izan ziren Lojendio, Barriola anaiak, Mikel Urreta, Jesus M. Leizaola, Karlos Santamaria eta beste. Aitzol garaiko gazte intelektualen aitzindaria, liderra izan zen. T. Hernandorenak dioenez, Aitzolek bertsolari txapelketak sortzera bultzatu omen zuen bera; eta San Sebastian Irratian astero euskaraz ordu erdiko saioa lortzera ere —garaipen handia garai hartan—. Aitzolek berak ere bere kazetalanak elite batentzat idatzi zituela aitortzen du behin edo behin.

Aitzol eta Euskaltzaleak taldeak *Yakintza* kultur aldizkari elebiduna sortu eta argitaratu zuten (1933-1936, 21 ale). *Yakintza* garrantzitsua izan zen: literatura nagusi zen hor, olertia batez ere, baita saio eta artikuluak olertiaz nahiz beste gai batzuek. Teatroa ere bazen (itzulpenak, Labaienien saiakerak etab.). Eta euskal kultur gaiak: pedagogia, euskararekin lotuta (Landeta, Olano de Alzo, B. Echegaray, Aitzolen *Lucha de idiomas en Euzkadi y en el mundo* 1934); historia (M. Anguizar, F. Arozena, A. Zabala, J. K. Guerra); legedia (B. Etxegarai, Leizaola, Azurza, Aniceto Olano eta Miguel Olano); soziologia (J. Aspiazu, Thalamas); etnografia eta Folklorea (Aranzadi, Eguren, Barandiaran, M. Lekuona, A. Irigarai); artea (J. Eizagirre, P. Garmendia, J. Artetxe); musika (A. Donostia, A. Olazarán de Estella); eta azkenik, “Euskaltzaleak’en Ekintza” delako saila.

Kultur pizkundea bai, baina euskararena zen garrantzitsuena, Aitzolen iritziz. Errealitatea, ordea, latza zen: euskal liburu gutxi argitaratu zen garai hartan

—1930an eta hortik aurrera—, eta ale gutxiko argitalpenak ziren; are gutxiago irakurtzen zen, eta, zer esanik ez, olertia. Euskaraz irakurtzera bultzatu nahi zen. Lizardik-eta atera nahi zuten euskal egunkariak izandako porrota errealtate latz horren beste erakusburu bat baino ez da.

## Aitzol, kazetari

Aitzolek intuizioa eta gauzak antolatzeko buru argia eta dohainak zituen, denek aitortzen ziotenez. Ekintzailea zen, eratzzailea, bultzagilea eta zabaltzailea edo propagandista, lehenik apaiz gisa misioen arloan (kongresuak, aldizkariak) eta gero euskal kultura munduan eta euskal gizartean. Bere eta Euskaltzaleak taldearen egitasmo eta ekintzen alde hizlari ibili zen eta kazetari gisa jardun zuen azken 6 urte t'erdiz. Politikan, ordea, ez zuen sartu nahi izan, 1931an Estatutoa Madrilan defendatzeko EBBko buruzagiak proposatua izan arren. Aitzolek kazetari gisa lan egitea hautatu zuen, euskal berpizkundearen gidari eta eragile, eta orobat euskal gizarte kristauaren eragile gisa jarduteko.

Kazetari legez misio aldizkarietan hasi zen: *Nuestro misionero-Gure mihiolaria* aldizkari elebidunean (1924-29), non editorialak idatzi baitzituen, eta bere zuzendaritzapeko *Illuminare* (1927) delakoan. Hor trebatu ondoren *Euzkadin* eta batez ere *El Día*n kazetari artikulista izan zen, iritzi artikulatu garrantzitsuak idazten zituzten horietakoa. *El Día* donostiar egunkariaren sorreratik idatzi zuen (1930) eta gainera erredakzio kontseilukoa izan zen, editoriala erabakitzen zen bilkurara etortzen zen eguneroko buruetarik bat zen eta antolatzaile lanetan jardun zuen.

*El Día*, Pio Montoyak bultzatu eta diruz hornituak, gerra hasi arte iraun zuen. Montoya hori Aitzolen ikaskide eta adiskidea zen eta Gipuzkoarako egunkari bat nahi zuen ongi informatu eta euskal edo euzko nortasuna erakutsiko zuena, kristaua, noski, Jainko eta foruen defendatzailea, nahiz ez EAJ-PNVren agindupekoa (kontu honetan gorabeherak izan zituzten, Irazusta eta Ziaurrirek egunkaria alderdiaren diziplinapekoa izan zedila nahi baitzuten) eta euskal edo euzko kulturari bultz egingo ziona. Hauteskunde-kanpaina giroan oso garrantzitsua izan bide zen Donostian *El Día*ren agerpena, eta honen adierazgarri, erantzun gisa *El Diario Vasco* sortu zela aipatzen da. *El Día*k 10.000 ale ateratzen omen zituen. Aitzolek antolatu zuen *El Día* eta berak ekarri zuen zuzendaria, J. Landaburu, eta gero, hau diputatu izendatzean, Jose Lekaroz, *Euzkaditik*. Harreman estuak zituzten egunkari jeltzale honekin (P. Olano, Kizkitza), EAJ-PNV alderdiko Irazusta eta J. Eizagirre tolosarrekin eta besterekin....(Ik. M. de Ugalde, "Biografia de Aitzol", *Obras Completas-Idazlan Guztiak*, 1).

Aitzolek beraz sei urte t'erdiz idatzi zuen, *Euzkadi* eta *El Día*n batez ere. Guztira, bostehun artikulutik gora gutxienez, bere ohiko izen eta ezizenez si-

natuak eta *Obras Completas-Idazlan Guztiak*-en bilduak soilki kontutan hartuta. Beste zenbait ere idatzi omen zituen, batzuk beste goitizen batzuek izenpetuak, aipatutako liburukietan bildu gabeak. Garai hartako egunkari eta aldizkarietan horien azterrenak bilatzea komeniko litzateke.

*El Día*n astean behin guttinez idazten zuen Aitzolek. Haren artikulua, gehienetan, lehen orrialdean agertzen ziren, are orrialdeburuan: edo editorialak ziren, edo eguneko albisteei buruzko egunkariaren zeresana zekarren “El Día al día” sailekoak, edo “gizarte orrialdea” zeritzanekoak (beste egunkari batzuek ez zutena eta, aldiz, *Euzkadi* eta *El Día*k bai, kristau joerakoak izan arren). *El Día*ko “gizarte orrialdean” idazten zuen, adibidez, J. M. Benegasek, Txiki Benegas-en aitak, “solidario” edo orduko ELAkoen pentsalarietarik bat zena.

Aitzolen kazetalan gehien-gehienak gaztelaniaz idatziak dira, baita haren liburuak. Euskaraz gazteleraren aldean gutxi idatzi zuen: *Eusko Olerti* liburuen hitzaurreak —hamaika— eta kazeta artikulua batzuk —dozena bat gutxienez—. Zergatik gazteleraz? Alde batetik, irakurle gutxi omen zegoen, euskaraz irakurriko zukeenik. Baina bestalde, badirudi Aitzolek ez ziola euskal kazetaritzari Lizardik —euskal eguneroko sortu nahian baitzebilen— ematen zion garrantzia aitortzen, nahiz berak euskaraz ere ongi idazten zekien. Eragingarriagoa bide zeritzon egunkarian euskal gaiak —gai garrantzitsuak— erabiltzeari, toki onean jarriz, noski, eta are gazteleraz erabiltzeari. Hortaz, Aitzolek euskal literatura eta euskara egunkariko toki onera eraman zituen franko aldiz, *El Día*ko lehen orrialdera, editorial artikuluen tokira, *Euzkadin* Kirikiñok egin bezalatsu. K. Mitxelenak behin idatzi zuen *El Día* izan bide zela, Aitzolen eraginez, euskara ghetotik atera zuena, barrualdeko orrialde eta bigarren mailako gaien artetik, alegia (“Las lenguas españolas y el periodismo escrito”, *Len-guaje en periodismo escrito*, Fundación March, 1977). Egia ote?

Aitzolek kazetari kontzientzia zuen. Harentzat prentsa mitin baten modukoa zen, egunero milaka pertsonen aurrean emana. Eta premiazkoa eritzi zion informazio-agentzia zentral abertzale bat izateari, baita ere beharrezkoa artxibo, biblioteca eta Euskal Herriko kazetaritza eskola —erderaz eta euskaraz— sortzeari (“El día de la prensa patriótica”, *Euzkadi*, 1936-VI-7).

Euskal kultura pizkundearen eta kristau gizartegintzaren eragile: horiek dira Aitzolen kazetaritzaren bi alderdi nagusiak, haren kazetalanak biltzen dituzten bi liburukien izenburuek argi eta garbi jasotzen dutenez. Bere kazetari lanean Aitzol ez bide zen bakarrik sentitzen. Kultura-gauzetan Euskaltzaleak erakundea zuen atzetik. Eta gizarte arazoetan Policarpo Larrañaga, Alberto Onaindia —propagandistak eta ideologoak zirenak— eta besterekin jardun zuen hizlari. Bereziki Euskaltzaleak-en ekintzak harrotzean, erakunde horren eledun gisa ari izan zela ohargarria da.

Kazetari katoliko eta abertzale legez jardun zuen (*Euzkadi*, 1932-IX-11), apaiz gisa jardun zuela ez esatearren. Ez kazetari politiko gisa. Ez zen eguneko arazo politikoak aztertzen eta jokabide politikoak markatzen zuten horietakoa.

Eguneko politika konturik ez da ia batere agertzen haren artikuluetan. Izatekotan ere, ideologo gisa jardun zuen. Baina euskarari eta euskal literaturari zegozkion kontuetan, horietan bai agertu zuela argi eta garbi zer jokabide hartu behar zen, baita abertzaletasun eta gizarte arazoetan (greba, sindikazioa atab.), ideologikoki behintzat. Aitzol batez ere idea eta ekimen zabaltzailea, propagandista izan zen.

### **Aitzolen pentsaera**

Aitzol kristautasun eta katolikotasunetik abiatzen da bere pentsaera eta ekintzetan. Hor oinarritzen du bai abertzaletasuna eta bai gizarte ekintza (El Día, 1932-XI-26). Eta lotu egiten ditu beti politika eta gizarte arazoak. Dena elkarrekin lotuta dago Aitzolen pentsaeran: abertzaletasuna katolikotasunarekin, euskaltzaletasuna abertzaletasun eta katolikotasunarekin, katolikotasuna gizarte arazoan konponketarako ekintzarekin, gauza materialak izpiritukoekin. Koherentzia handia erakusten du, gainera, lotura hauek defendatzerakoan.

Jeltzale agertzen zaigu ideologiaz, aranatar, eta erlijio aldetik bere konfessionaltasuna erakusten du. Are gehiago, “euzkotarrak Euzkadirentzako; Euzkadi Jaungoikuarentzako” S. Aranaren leloa beretzakotu zuen Aitzolek, bere Maisuaren balio-hierarkia hau onartuz, abertzaletasuna Jainkoaren maitasunean oinarritzen baitzuen (“Mi patriotismo se funda en el amor a Dios” izenburudun artikulua, El Día, 1933-IV-5).

Demokrazia, nazionalismo, internazionalismo, euskal abertzaletasun eta hauekin lotutako gaietan Aitzol ideologotzat hartua izan dela dirudi, kazetalan ez gain *La democracia en Euzkadi* liburua idatzi baitzuen (*Obras Completas-Idazlan Guztiak*, 2. lib.). Nolanahi ere, kazetalanetan agertzen denez, behintzat, Aitzolen abertzaletasunean kultura alderdiak du pisu handiena, eta hau haren ezaugarrietarik bat da. Haren iritziz, kulturarik gabe ez dago pizkunderik; areago, kultura da pizkunde mugimenduen balio garrantzitsua (El Día, 1932-VIII-8). Uste handia zuen kulturari eta harentzat kultura herriak tradizioz jasotako guztia zen, —eta ez bakarrik euskara—, artea eta erlijioa barru. Beharbada ideologizatu nahi zuen kultura, hein batez —hortik Barojarekiko polemikak—: adibidez, teatroan erlijioa eta abertzaletasun edukinak sartu behar zirela pixkat, esaten zuen (Euzkadi, 1932-XII-25).

Ekonomia eta politika alderdi materialei dagozkien kontuak izaki, euskara da Euskal Herriaren izpiritua edo arima, Aitzolen arabera. Eta euskara pizteko literatura omen biderik eragingarriena, eta literatura barruan herri-poesia artistikoki lantzea. Horregatik, Aitzolek bere eginkizuntzat hartu zuen literatur kritika egitea eta bidea erakustea. Eta horregatik aberriaren pentsamendu artistikoa lantzen ari zirenei zuzentzen zaie, elite bati (ik. haren azken artikulua, “Revasquización del pensamiento literario”, Euzkadi, 1936-VII-18). Bestalde,

euskararen pizkunde mugimenduaren barruan une berezi batean eta euskal gizartea erlijio krisian bizi zelako kontzientzia zuen.

### Zertako idazten zuen

Euskal pizkundearen urrats, aztarna eta zantzuen lekukotasuna jaso, figura, egile eta obra esanguratsuenen berri eman eta jendaurrean agertarazi, hedatu, zabaldu, zuzpertz, bereziki Euskaltzaleak-en ekimenak. Hori nahi eta egin zuen. Horregatik jardunaldi, omenaldi, ospakizun eta jaietara joaten zen, horietan ikusi edo ohartutakoa bere artikulua idazteko aitzakiatzat hartuz. Balio artistiko berrien lekukotasuna jasotzea zen, harentzat, atsegirik handiena (“Arte, religión y patriotismo”, Euzkadi, 1936-IV-9). Hor agertzen zaizkigu, beraz, Aitzolen kazetalanetan, euskal kulturarekin, abertzaletasun edo gizarte arazoeekin lotutako garaiko gertakari, egintza, ekimen, figura eredugarriak. Baina baita, mendeurrenak kari, aldi igaroetako gertaera hautatuak ere.

Eta ez bakarrik Hegoaldeko pizkundeari dagozkionak, Iparraldekoari ere bai. Ezta ere Euskal Herriko pizkundeari dagozkionak huts-hutsik, Espainia eta Frantziako Estatuetakoko beste herrietakoak ere bai, bereziki Kataluniakoak. Are gehiago, Europa eta munduko herri txiki eta zapalduen pizkundearen berriak etxean, gure artean, ezagutarazi zituen, Euskal Herriko pizkundera sendotzen lagunduko zutelakoan. Horregatik datuak bil eta aztertzen zituen herri horietako gauza batzuk Euskal pizkunderentzat jarraigariak izan zitezkeelakoan, batez ere hizkuntza, literatura, elebitasun eta abertzaletasun gauzetan.

Gertaera haien esanahia epaitu eta horrela irakurleak bere iritzian sendotu eta armatu nahi zituen. Hala irakurleen buruan eta bihotzean etengabeko lana egin bide zuen. Alta, helburu praktikoak bilatzen zituen: hizkuntzari dagokionez, egoera gaintu, euskara ofizial bihurtu, elebitasuna ezarri eskoletan. Azken xedetzat Euskal Herriaren berreuskalduntzea zeukan (“Por la redención del idioma nacional”, Euzkadi, 1931-VII-29). Baina ongi zekien helmuga hori oso urruti zegoela. Errealitatetik abiatzen baitzekien, bat-batean egintza handien premia aldarrikatu beharrean urrats apalak eman behar zirela uste zuen (adibidez, euskal teatro nazionalerako bidean herri-teatro apaletik abiatu). Kristau gizartegintzari dagokionez, langileen elkartasuna bultzatzea eta horren kristau zentzua erakustea, Ebanjelioan oinarriturik, zen Aitzolen helburua: “Infiltrar en esas masas proletarias, el profundo sentido cristiano-social de la sindicación fraterna: consolidar los conocimientos de las nacionalidades en los principios del Evangelio, es la labor más sabia y prudente para el porvenir” (“Las rojas linternas del peligro...”, El Día, 1932-XI-26).

Aitzolen kazetalanetan kristautasunaren krisia nabarmen agertzen da, langile gazte, emakume eta hainbat jende Eliza Katolikotik aldentzen, eta hala ere, bertan behera utziak direla ikustean. Badirudi Elizak herri zapalduen eta lan-

gileen alde lan egin behar duela eta egiten duela erakutsi nahi zuela Aitzolek. Elizgizonei ere zuzentzen zaie argi eta garbi esanez, odol-, hizkuntz- eta nazionalitate-eskubideak defendatzea ere badela haien eginkizuna, Jainkoagandik datozelako (“La Iglesia frente al fascismo”, Euzkadi, 1932-XII-31).

### **Gaiak, ideiak eta iritziak**

Aitzolen artikulu asko lehen orrialdeko editorial eta antzeko artikuluak direla kontutan hartuz, eta, gainera, erredakzio-kontseiluak hautatuak eta eza-riak, ondoren gai nagusiak aipatuko ditugu, orokorki:

Euskara eta eskola, eta elebitasuna, batez ere eskolan. Literatura —haren arlo kutunena eta jorienetarikoa—. Artea eta euskal kultura, euskal pizkundearen erakusgarri guztiekin: folklorea, txistua, dantzak...Euskal historia eta politika. Abertzaletasuna Euskal Herrian eta munduan, hots, garai hartan munduan borrokatzen ari ziren herri zapalduen abertzaletasuna, herrioren pizkundearekin lotuta, bereziki literaturan.

Gizarte gaiak: euskal gizarte kristau eta zuzenbidezkoa eta euskal sindikalgiaren premia. Ohartarazi behar da euskal abertzaletasun eta gizarte arazoak Aitzolek ideologikoki tratatzen dituela; ez direla eguneko politika zehatz markatzekoak, ez ongi izate materialarekin zerikusia dutenak —ekonomia etab.—, izpirituarekin baizik.

Ondoren, gai-sailotan agertzen diren ikuspuntu eta iritziak zehatzago eta labur enuntziatuta aipatuko ditugu, sei urte t’erdiko artikulutza gaingiroki eta ia osotasunez begiratuta. Iritzi horien bilakaerak, gertaeren arabera, beste azterketa bat eskatuko luke. Esaterako, badirudi literaturak gero eta garrantzi handiagoa hartzen duela, hasieran euskararekin parekaturik badabil ere.

### **Pizkundera eta euskara**

*Pizkundera* delako kontzeptua eta hitza (gazt. *renacimiento*), bai euskara eta euskal literaturari, bai politika abertzaleari dagokionez, bere garaiaz ari zela erabiltzen zuen Aitzolek. Baina, zentzu zabalean, baita aurreko garaiez ari zelarik: Abbadie, adibidez, *renacentista* deitzen du, eta Fr. J. Mateo Zabala alegilaria pizkundearen aitzindari (Euzkadi, 1934-VI-8). Pizkundera, Aitzolentzat, Euskal Herriarena nahiz edozein herri txiki edo zapalduena da, edozein alderdi eta arlotakoa. Hitz honen erabilera eta adiera zehatzago aztertu beharko litza-teke, hala ere.

Euskara eta eskolaz Aitzolek zituen iritziak labur ditzagun. Euskara egoera larrian dago, nahiz esperantza baden (“La agonía del euskera y la resurrección del finlandés”, Euzkadi, 1931-7-24); itotzen ari da (“Abertzaleak eta euskera”,

El Día, 1935-VI-16). Hizkuntz burruka dago eskolan euskara eta gazteleraren artean. Oso gutxi aurreratu da elebitasun arazoan: Eskola Normalik ez, testuliburuak egin gabe, testik ez... (“El Magisterio oficial, por el bilingüismo”, Euzkadi, 1936-VI-4). Udalek bultzatu behar dute euskara eskoletan; udalek diruz lagundutako kolegioak ezin dira ukatu euskal irakaskuntza ematera. Eta badira adibide eredugarriak ere: Lekaroz eta Tolosako bi kolegio (“La enseñanza euskaldun y los municipios vascos”, El Día, 1931-XI-12). Eskola “libreak” (hau da, pribatuak) dira euskararen irakaskuntza segurtatzen dutenak, diktadurapean egin zuten bezala, eta ez udal-eskolak edo auzune-eskolak —hots, “Escuelas de Barriada” direlakoak—.

Atzerrian jendeak eta herriek beren hizkuntzaren eskubideak sutuki defendatzen dituzte. Adibide eta ereduak: Suiza, Eskozia, Belgika —non flamenkoak eredugarri baitira—, Holanda, Frantzia Britainia eta Languedoc; Gales-en kasu argigarria (Euzkadi, 1935-III-6). Elebitasunaz hona hemen Aitzolen galdera interesgarri bat: “Badaukagu euskaldunok, euskaraz dakigunok, benetan geure hizkuntzat hartzen dugunik?” (“El niño, víctima del conflicto de los idiomas”, Euzkadi, 1930-XII-10).

Estatutuak itxaropen handiak sortarazten ditu: hari esker euskara bizkortuko eta justizian ere erabiliko da (“El estatuto es el mejor camino (Hacia la euskerización del País Vasco)”, El Día, 1932-VI-15). Euskara irakaskuntzan ez ezik Estatuaren ordezkartzan ere erabili behar da: Euskal Estatutoarekin Euskal Estatuko kargu ofizialdunek euskara erabili beharko dute (“El Estatuto Vasco y el euskera por el desarrollo del Renacimiento euskerista”, El Día, 1932-VI-12). Euskarak justiziako eta epaitegietako hizkuntza izan behar du (“El euskera en los tribunales de justicia”, Euzkadi, 1934-IX-21). Eredua Katalunia da (“Euskal Gurasoen Alkartasuna”, Euzkadi, 1936-IV-29).

Bereziki abertzaletasunak euskara gehiago bultzatu eta erabakitzeke kemen handiagoz jokatu behar du (Euzkadi, 1935-III-6). Euskara itotzen ari da eta abertzaletasunak lagundu behar dio, eta EAJ-PNVk ere bai: “Eusko Alderdi Jeltzalea, goitik beraño, esnatu dadila erabaki sendoa artzeko. Abertzale banaka batzuk lanean aritzeak bakarrik gauza utsa da. Eusko Alderdi guzía lanari lotu bear zaió euskera gaizkatzeko” (“Abertzaleak eta euskera”, El Día, 1935-VI-16).

Ildo honetatik, Abandoko Uri Buru Batzarreko lehendakariak eginiko urratsari jarraigarria deritzo: “El presidente de Abando’ko Uri buru Batzarra, doctor Yankee, pronunció breves y sentidas palabras, en euskera, encareciendo la importancia que tiene el expresar nuestros pensamientos en lengua vernácula y haciendo patente su confianza de que, merced al entusiasmo que por nuestra causa sienten los afiliados, será posible en plazo no muy lejano celebrar todas nuestras asambleas en el idioma de nuestros mayores” (ibid., *Euzkaditik* jasoa). Aipatu artikuluan dioenez, EAJren batzar orokorraren aurrean, abertzale euskaltzaleek “nai gendukena auxe da: Batzar Nagusi orretan euskeraz egitea, gu-



txienaz erderaren neurri: euskerari buruz erabaki sendoak artzea. Adibidez, ara nolakoak: batzoki guzietan, negu aroan, euskera ez dakiten alderdiratutako guziak biartuak izan ditezela euskera ikastera, gazteak diranak, batez ere; izparringietan nagusi, noizik beinka, euskera agertu dedila...” (ibid.).

Eta euskara udalaren babespeko eskoletan ez ezik, herriko-etxeetan (udaletan) ere nagusi ezartea da alkate eta zinegotzi abertzaleen zeregina, batzarretan mara-mara erabiliz, eta udalaren dirulaguntza jasotzen duten ikastoletan euskaraz irakatsi dezatela eta herriko-etxeetan funtzionarioei euskera jakin dezatela eskatuz (“Euskera erriko-etxetara”, El Día, 1936-IV-3). Euskara beste arazoan gainetik dago: “Euskerari eustea bedi errikoetxe abertzaleen lenengo elburu eta egin bearra” (ibid., hauteskunde garaian esana).

Gazteria euskaltzaletu: horra hor zeregina. Honetan Iparraldean Eskualzaleen Biltzarra egiten ari zen lana —idaz-lehiaketak haur, gaztetxo, apaizgaien artean— eredugarria omen da, ia 2000 pertsonak parte hartu baitute. Hau ikusita, Euskaltzaleak-ek ere holako idazketa-lehiaketak antolatzeari ekin omen zion unibertsitarioen, gaztetxoen eta haurren artean. Eta Eskualzaleen Biltzarrak, ordainez, bere urteroko bileran bertsolarien txapelketa antolatzea erabaki, gero, irabazleek Euzkadiko Txapelketan parte har zezaten. Ekimen hau hiru tolosarrek proposatu omen zuten: Eizagirre, Lopez Mendizabal eta Aitzolek berak (“La euskerización de los jóvenes (La juventud de Euskadi continental)”, Euzkadi, 1936-VII-11). Hona hemen beraz Euskaltzaleak eta Eskualzaleen Biltzarra harreman estuan eta elkarren eragile.

Euskerari buruz, kazetalan mordoxka batez gainera, bi saiakera idatzi ziotuen Aitzolek. Bata, *Lucha de idiomas en Euzkadi (Yakintza, 1934)*, *Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa* izenburupean A. Olano, B. Etxegarai eta E. Landetaren idazlanekin batera Euskaltzaleak-ek argitaratua (Donostia, 1935. Ik. *Obras Completas-Idazlan Guztiak*, 2. lib.). Bestea, *La muerte del euskera. Los intelectuales vascos o los profetas de mal agüero* liburuskua, Donostian R. Leizaolaren inprimategian argitaratua eta kazetalan sorta batek osatua (El Día, 1931ko azaroan agertaraziak).

### **Pizkundea literaturan: olertiaren egitekoa**

Aitzolek uste handia zuen ezarria literaturan, batez ere olerti edo poesian. Euskal Herriak literatura ederra izan zezakeen, haren iritziz, legegintza aldetik —irakaskuntza publikoarenetik, adibidez— ahul bazegoen ere. Pizkundea eta poesia, abertzaletasuna eta poesia elkarrekin lotuta daudela uste du Aitzolek. Pizkundera lehenik poesia agertzen omen da.

Poesiaren egitekoa pizkundearen eragile izatea da, herriaren iratzarle, herriari sentiarazi behar dio, emozioz bete; horretarako herri-euskara erabili behar da, nahiz garbitua, baina beti herriak darabilen mardultasun eta freskototasuna-

rekin (“Los poetas del destierro”, Euzkadi, 1935-V-22). Kultur espresioen artean literatura da garrantzitsuena, literaturaren adierazkera definituagoa eta konkretuagoa delako, adibidez, musikarena baino, eta herriari bere izpiritua eraikitzen bultzatzeko ahalmen handiago duelako (Euzkadi, 1934-VI-1). Herri poesian herriaren historia dago; euskaldunen izaera erakusten du (Euzkadi, 1934-IX-9). Eta poeta Euskal Herrian herri-gogoaren eleduna izan da (“El VII Día de la Poesía Euskaldun”, Euzkadi, 1936-V-13).

Beste alde batetik, olerria hizkuntzaren eta literaturaren indargarri edo sendogarri da (““El poema “Kalevala” y la resurrección nacional de Finlandia (La fuerza del idioma)”, Euzkadi, 1933-X-5). Baita edergarri ere, hizkuntzari edertasuna eman behar baitio (“Los poetas del destierro”, Euzkadi, 1935-V-22).

Herriaren esnatze eta pizkundean literatura aurrelari ibili ohi da, maiz poetak izanik herri-pizkundearen lehen somaketa. Poetak, herri-pizkundearekin batera edo aurretik doaz: “El renacimiento patriótico va siempre acompañado, y por regla general precedido, por el renacer de la poesía indígena” (“Del renacimiento catalán al Estatuto (Renacimiento y poesía vasca)”, Euzkadi, 1932-VI-9).

Honetan atzerriko eredu nagusiak Finlandia, Proventza eta Katalunia dira. Finlandia, autonomia politikoarekin konformatu gabe kulturaren eta hizkuntzaren alde lan egin zuelako. *Kalevala* poema da Finlandiako pizkundearen emaitzarik bikain eta eredugarriena (Euzkadi, 1933-X-5), haren sortzearen mendeurrena ospatu zelarik 1935an (Euzkadi, 1935-X-26). Erromantizismo garaian finlandiar gazteriak folklorea eta kultura bultzatu zituen. Suomiera edo finlandiera landugabea zen, baina 1902an koofizialtasuna jadesi eta Aitzolen garaian nagusitu zitzaion suedierari irakaskuntzan. Suomiera berpiztua zenean, euskal abertzaletasunak urte gutxi zeramatzan oraindik, eta euskararen aldeko kanpainak are gutxiago. Iraunkortasunean ere eredugarri omen dira finlandiarrak.

Herri-poesiaren bilketan ere jarraigarria da Finlandia, artxibo nazionala sortu baitzuten, bertan milioi erdi herri-poesia gordez. Orobat Letonia, herrialde honek ere bere herri-poesia, ipuin, alegiak bildu baitzituen (“La poesía popular letona en el renacimiento nacional (El abandono de la poesía popular en Euzkadi)”, Euzkadi, 1933-VI-25). Izan ere, Finlandia eta Letoniako herri-literaturaren bilketaren eredu jarraitu nahi dute Aitzol eta Euskaltzaleak-ek, eta horregatik institutu bat beharrezkoa dela diote, Kataluniako Patxot Institutua bezalakoa, eta hori ezean Euskaltzaleak-ek herri-poesiaren bilketa bultzatzeko duela, sariketa eratuz, Urretxun ospatzeko den IV Olerri Egunerako (ibid.).

Proventzako pizkunda eta Mirèio eredugarri iruditzen zaizkio, Mistrali eginiko omenaldia kari (Euzkadi, 1930-IV-13, 16, 22; El Día, 1931-I-25). Halaber Katalunia: mende bateko pizkunde literario eta politikoaren ondoren Katalunia bere askapenetik oso hurbil dagoke (“1833-1933: Centenario del renacimiento catalán”, Euzkadi, 1933-VI-16; ik. ere Euzkadi, 1933-VI-4).

Beste adibide batzuk, non poesia pizkundearen aitzindari ari baita: Flandria (“El movimiento flamenquista y la poesía (Día de la poesía en honor de Iparagirre)”, Euzkadi, 1933-V-21). Letonia (Euzkadi, 1933-VI-25). Filipinak, Rizal eta Palma poetekin (Euzkadi, 1932-IV-24). Polonia (“Los poetas del desierto”, Euzkadi, 1935-V-22).

Izan ere, poetak baitira, ez politikoak, herri zapalduen sentiberatasuna jasotzen duten lehenak. Gainera, poesia eta kantua loturik doaz: jendeak kantatu egiten du herri-pizkunde garaian (“Del renacimiento catalán al Estatuto”, Euzkadi, 1932-VI-9). Ukrainan ere poeta bat bihurtu da aberriaren sinbolo (“Desde la desgraciada Ucrania a la aldea de Bedoña (Rutas de la poesía patriótica)”, Euzkadi, 1935-V-15).

Beraz munduko herri zapalduen abertzaletasunaren eta poesiaren arteko lotura erakusten digu Aitzolek. Zerbait berria, ausaz. Eusko Oleriti Egunaren bidez hark eta Euskaltzaleak-ek poesiaren eta abertzaletasunaren arteko lotura gero eta sendoagoa nahi zuten. Ororen buru, literatura landua eta ugaria nazio jausitua iratzartzeko bitarteko hoberenatarik bat da, haren iritziz (Euzkadi, 1931-IV-1).

Aitzolek herri-poesia edo kantu eta bertso zaharren bilketa-lana beharrezkotzat jo ez ezik biziki maite zuen. Badakigu Eusko Folklore taldean ibili zela Barandiarenekin. Eta, bere kazetalanetan irakurrita, herri-poesiak bildu zituela, barbarako iruleen ziklokoak (Euzkadi, 1934-VIII-21). Eta garaiko egile hil berrien poesiak jaso ere bai: Mendiage (Euzkadi, 1934-XII-11); J. K. Zapirain (Euzkadi, 1934-IX-29); Uranga (“Un renacentista de primera hora (Juan Ignacio de Uranga)”, Euzkadi, 1934-XII-29). Kantu zaharrak biltzeko deia egin zien gazteei (“Gipuzkoa Mendizale Batzako gazteei”, El Día, 1936-V-6). Haren *Colamus carmina nostra* delako kantu bildumaren berri jakiteko irrikitan gaude.

## Literaturkritikari eta gidari poesian

Aintzat hartu beharreko kritikaria da Aitzol, garaikide zituen olerkari go-renekin batera (Orixe, Lauaxeta, Lizardi). 1934an euskal estetika literarioari edo, haren hitzez esateko, “eusko elerti-kera berezia”ri buruzko saio bat idazteko asmoaren berri ematen digu (“Estética peculiar de la poesía vasca” artikulua, Euzkadi, 1934-IV-21). Gai horren mamia euskarazko lan batean garatua zuela diosku bere azken artikuluan (Euzkadi, 1936-VII-18). “Eusko elerti-kera berezia” izenekoa dela dirudi (*IV Eusko Olerkiak* liburukoa, 1933; Yakintza, uztail-dagonila, 1934, 10. zenbak.). Bestalde, 1936rako inprentaratzeko prest omen zeukan idazlan teoriko bat, *La poesía popular en el renacimiento de los pueblos* delakoa, Elorza eta Labaien arabera, agertu gabea (ik. M. Ugalde, “Biografía de Aitzol”, *Obras Completas-Idazlan Guztiak*, I., 14. or.).

Eusko Olerti Egunak, eta ondoren Euskaltzaleak-ek argitaratzen zituen *Eusko-Olerkiak* liburuak iturri garrantzitsuak dira Aitzolen irizpideak ezagutzeko. Hots, 1930koa Errenderian —Lauaxetak irabazia—, 1931koa Tolosan —Lizardik—, 1932koa Hernanin —Loramendik—, 1933koa Urretxun —F. Etxeberriak—, 1934koa Zarautzen —J. Zaitetik—, 1935koa Bedoñan —Jautarkol eta Orixek— eta 1936koa Lekeitioan, azken hau Otamendi eta Sukiak irabazia (ik. Euzkadi, 1936-V-13). Baina Aitzolen kazeta-artikuluek ere informazio handia eskaintzen dute, eta, izan ere, literaturkritikazkoek haren alderdirik kutunena, agian, erakusten dute. Hainbat idazle plazaratu eta obraren berri eman eta kritika egin baitzuen, bera baino lehenagokoen eta batez ere garai-kideen epaile moduan jardunetz.

Adibidez, Aitzolen arabera, S. Aranaren poesia kantatzeko da, aberriaren emozioa agertzen baitu (“La emoción de la patria en el canto y la poesía (La intuición de S. Arana)”, 1932-III-3). Lauaxeta maitasunaren poeta da (“El poeta del amor”, Euzkadi, 1932-II-3; “Por la senda de la poesía erótica”, Euzkadi, 1932-II-6). Hain zuzen, maitasunaren gaia zela-eta Aitzolek Orixerekin eztabaida izan zuen (ik. M. Ugalde, “Biografía de Aitzol”, *Obras Completas-Idazlan Guztiak*, I. lib.). Aitzolek *Arrats Beran* goraiatzatzen du, herri-poesiari hurbildu zaiolako, nahiz oraindik hizkera argiagoa bilatu behar duen (“El heraldo de la poesía vizcaína (Poesía impresionista)”, *El Día*, 1936-VI-26).

Orixe, “El cantor de la vida vasca” legez kalifikatu zuen artikulu baten izenburuan (Euzkadi, 1930-X-12), eta euskal olerti jatorraren sortzaile, “Itzai zekena” olerkian erakutsi omen zuenez (“La genuina poesía vasca”, Euzkadi, 1930-X-16). *Barne Muinetan*-en balioak goraiatzatzen eta kritika batzuk egiten dizkio: adimen-poesia sendimenduari gehiegi nagusitzen zaiola, eta, batzuetan, ulertu ahal izateko erderara jo beharra dagoela (“Balance literario euskeldun de 1934”, Euzkadi, 1935-I-6); ik. ere Euzkadi, 1935-VI-2).

Lizardi, “hizkuntzaren iraultzailea”, zaila eta euskal mitologia berria sortzerakoan orijinala omen da (“Urte-giroak. Paisaje de las estaciones”, Euzkadi, 1932-VI-15). Euskaltzale ekintzailea (Yakintza, 1933, maiatza-ekaina) eta euskal olerkari gorenaren omen da, gero eta ezagutuagoa izango dena (“Homenaje a ‘Javier de Lizardi’”, Euzkadi, 1934-VI-10). *Umezurtz Olerkiak* -en hitzaurreaz gain (Euskaltzaleak, 1934), kritika egin zion (Euzkadi, 1934-V-8).

Beste olerkari eta bertsolari batzuei buruzkoak: Jautarkol —Aitzolen lan-kide hainbat ekimenetan, *Biozkadak* (1929) argitaratu ondoren I Olerti Egunean Erreterian omendua— olertia folkloregaiekin aberastea erabaki omen duena (Euzkadi, 1930-VII-10). Loramendi, behin eta berriz goraiatua (ik., adib. *El Día*, 1933-III-25; Yakintza, 1933, uztaila-abuztua; “El IV Día de la poesía vasca (El homenaje al poeta ‘Loramendi’)”, Euzkadi, 1935-VI-1). Zubimendi, olerkari eta kazetaria, *Aberri Oyuak* (1932) —zeinen 5000 aleak agortu omen ziren— eta “Zumalakarregi-Poematxoa”ren egilea— eta R. Renteria (“Poesías vascas (Nuevas floraciones)”, Euzkadi, 1935-IX-29). Eta Olerti Egunetan ager-

tutako beste poeta gazte mordoxka bat (F. Etxeberria, J. Zaitegi, Jakakortarena, Loidi, Tapia-Perurena, Gaztelu, Erkiaga, Onaindia, Otamendi, Sukia...).

Zaharragoen artean P. M. Otaño bertsolaria eta poeta ("Pampero y poeta vasco", El Día, 1931-I-17). Xenpelar (Euzkadi, 1930-XII-9). Arrese-Beitia ("Imaginerio y poeta", El Día, 1930-IX-21; "El poeta de las ferrerías", Euzkadi, 1930-IX-24). Zamarripa ("Un infatigable euskaltzale", El Día, 1930-IX-4; "¿Un poeta malogrado?", 1930-XI-29). J. M. Zabala alegilaria ("El iniciador del renacimiento (El fabulista bizkaino)", Euzkadi, 1934-VI-8). Euskal emigratioaren poetak: Egiategi, Zelhabe, Zaldubi, Elizanburu —hauek biak bigabeki guttietsiak omen direnak—, Mendiage ("La emigración vasca y la poesía euskaldun (Venero de inspiración)", Euzkadi, 1934-XII-11). J. I. Uranga (Euzkadi, 1934-XII-29), etab.

Aitzolek iritzi finkoa zuen euskal literatur-estetikari buruz, liburu hitzauzreetan eta kazetalan frankotan erakusten duenez. Hauen artean aipagarrienetakoa da haren azkena, gerra hasi zen eguneko, "Revasquización del pensamiento literario" izenburuduna (Euzkadi, 1936-VI-18). Artikulu honetan garbi adierazten du estetikari buruz zuen irizpidea: euskal herri-poesia berezia eta ederraren adierazkera, euskal arimaren edo euskal estiloaren arabera, kopla zaharren teknikak erakusten du, honek alde bi baititu: irudia edo metafora —euskal izaditik jaso— eta ideia edo kontzeptua —maitasun, ardo-kanta, kondaira...arlokoa—. Olerkari berriak —adibidez Otamendi edo Sukia, Eusko Olertiaren VII. Egunean agertuak—, teknika honi atxiki zaizkiola-eta, pozik agertzen da. Eta herriak, azkenean, pentsamendu artistiko nazionala bilatzen dutenen bideari jarraituko diola itxaroten du.

Aitzol hasiera-hasieratik eta beti irizpide berekoa izan zela dirudi, nahiz irizpide hori garatzen joango den. Haren iritzi, badago euskal estetika berezi bat eta euskal poesiak euskal izaerakoa izan behar du, herri-poesian edan behar du, euskal folklorean edo tradizioan ("Nuevo género poético", Euzkadi, 1930-7-10). Eta "Eusko elerti-kerak berezia" idazlanean ere irizpide bera buruan sartu nahi die olerkari ( *Eusko Olerkiak*, 1934). Orobatsu "Estética peculiar de la poesía vasca" artikuluan, non F. Etxeberria olerkaria gorai patzen baitu estetika horren erabileragatik (Euzkadi, 1934-IV-21).

Eusko Folkloren eginiko ikerketek zerikusi handia izan bide zuten Aitzolen pentsabidean. Hasiera-hasieratik, edo bestela geroxeago, euskal herri-poesiari nagusitasuna aitortu zion, lirika "unibertsalista"ren —hola deitzen du— aurrean, nahiz dela lirika klasikoa (Orixerena, esaterako), nahiz dela lirika erromantikoa edo modernista (Lizardi eta Lauaxetarena, adibidez). Batez ere azken honetatik urrunduz joan zen. Aitzolen joera hau ulertzeko —edota bilakaera, halakorik egon baldin bazen— komeniko litzateke, alde batetik, Comillasko haren literatura-ikasketak —autore klasikoak eta beste—, eta, bestetik, ahozko-literatura, herri-folklore, abertzaletasun eta *Mirèio*, *Kalevala* eta abarren eragina zehatzago aztertzea.

Aitzolek epaile moduan jardun zuen, norabidea markatzen. Eta olerkarien bide berriek zekartzaten ondorioak onak ez zirelako, haren ustez, kritika egiten die gorengo mailako batzuei: Lizardi, Lauaxeta, eta, batzuetan, Orixeri ere bai.

Kazetalanetan euskal literaturaren krisiaz behin eta berriz mintzaten da, urte bukaerako balantzeak egiterakoan. Irakurle gutxi dagoela, liburu gutxi saltzen dela: adibidez, olerti sariketakoak 300 ale bakarrik. Honen errua, hein batez, idazleek berek omen dute, frankok behintzat, euskara subjektibista eta literatura artifiziala egiteagatik, aukerak inoiz baino hobeak, idazle onak eta euskararen jakintza handiagoa izan arren. 1934ko urtea aurrekoarekin alderatzean, kalitatean ez dela aurreratu, dio. Bestalde, dirulaguntzarik eta Mecenasik eza, sari apalak etab. aipatzen ditu. Literatura ez dela gar politiko eta elektorala bezainbat piztu eta balantzea beldurgarria dela. Kritika egiten die olerkariei eta zer egin behar duten aditzera eman (“Por la literatura euskaldun (Concursos literarios)”, Euzkadi, 1934-XII-18; “Balance literario euskeldun de 1934”, Euzkadi, 35-I-6).

Bereziki Lizardi eta Lauaxetaren olerkiei ulerkaiztasuna egozten die —garbizalekeriagatik, honek ondorioz herritik urruntzea ekarritz— eta orobat kontzeptualismoa edo kontzeptuosismoa, hots, kontzeptu ilunak erabiltzea, esate baterako *Umezurtz Olerkiak*-eko “Arrats gorri”n. Idealista hutsak bezala jotzen dutela, alegia. Bertso eta idazlan eta artikulo zailaz nazkatu dituztela irakurleak (“Antziñako oituren piztutzea”, *El Día*, 1933-II-5). Orixe ere kritikatzan du, nahiz askoz gutxiago. Adibidez, Eusko Olerti Egunetako liburuko olerkiez ari dela, hauxe dio:

“Fáltales lo esencial: la frescura, la naturalidad de un euskera fluido, fácil, inteligible. Estan escritos con fórmulas lingüísticas la mayor parte de las poesías y artículos y nótase en ellos la ausencia del sentimiento de lo sencillo y natural, propio de un idioma vivo y palpitante. Hay en estas poesías y escritos gran caudal de estudio, de trabajo, de decisión y hasta de ingenio; pero en ellos domina el artificio sobre el arte, lo rebuscado sobre lo natural, lo retorcido sobre lo espontáneo. Y es ya hora de que lo advirtamos” (Euzkadi, 1935-I-6, ja aip.).

Eta, aldiz, beste olerkari apalago batzuk goraiatzan ditu: F. Etxeberría, Jauregi, Zubimendi, Loidi, Loramendi, Jakakortarena, Otamendi, Sukia... ulergarriagoak eta herri-ahogozotik hurbilago daudelako.

Jada 1932an lirikaren joerarekin guztiz pozik ez eta “eusko kutsuko poematxo errikoiak” saritzeko deia egin zuen, deiari Jakakortarena eta Tapia-Peurenak erantzunez. Irakurleak idazleengandik urrutiratzea olerkariei beraiei egozten die, hein batez:

“Ellos (idazleak) lo han alejado (publikoa) con un euskera subjetivista, personalmente arbitrario, con un valor en las palabras, imágenes y frases totalmente personal, que el lector no puede ni interpretar ni adivinar sino tras

grandes esfuerzos. Por eso gran parte de nuestra literatura es artificiosa, carece de naturalidad, de espontaneidad en la expresión, de viveza y lozanía.

Es imprescindible que, dando un viraje pronunciado, enfilemos la producción literaria hacia los senderos de lo natural, de lo espontáneo, de lo sencillo, huyendo de lo artificioso, amanerado, y de la expresión dura de un lenguaje fabricado en laboratorio. Es ésta una condición sin la cual no llegaremos jamás a tener una literatura vasca" ("Por la literatura euskaldun (Concursos literarios)", Euzkadi, 1934-XII-18, ja aip.).

Geroxeago, 1936an, olerkari batzuen azken joera begi hobez ikusi zuen, Lauaxetaren *Arrats Beranekoa*, esaterako, herri-poesiatik hurbilago omen zegoena. Nolanahi ere, olerkari landuek ezin zezaketen, haren iritziz, bertsolarien eragina izan; olerkari landuoi jendeak ihes egin omen die, bai jendearen indiferentzia, ezjakintasun, irakurtze ezagatik, baita olerkarion erruz, hein batez, estilo artifizial bati atxikitzen zaizkiolako, irizpide subjektibistegiaz, horrek zailtzen duela haien irakurketa ("El VII Día de la Poesía Euskaldun", Euzkadi, 1936-V-13). Euskal idazleek literatura unibertsalaren iturritik edatea ona den arren, etxean dagoen altxorra ezagutu egin behar dela dio Aitzolek. Adibidez, herri-alegiak edo abereen arteko ipuinak arte-bitxi preziagarriak direla dio, berak ere Eusko Folklorean bildu zituela, horien arteko bat hitz neurtuzkoa, eta, tamalez, euskal idazleek ez zituztela ezagutzen, haien izenak bederen (Axarko, Otsoko, Beleko...).

Euskal izaerako lirika edo tradizioan oinarritua bultzatu zuen arren, Aitzol poema epikoen alde zegoen: 1932tik aurrera gero eta garbiago agertzen da epikaren alde, sariketa berriak eta diruz ordainduak antolatuz:

"Mientras con el premio de "Honor" se pretendía elevar la categoría de la poesía vasca en sí, con el destinado a los poemas se intentaba encauzar la inspiración de nuestros poetas hacia el pueblo, para hacerle sentir, mediante la belleza poética, la emoción de los hechos legendarios o históricos de la patria vasca. Y así ha resultado "Len Euzkotarra" (Jakakortarenarena), en el que el joven poeta, recurriendo a los resortes de folklore vasco, se ha imaginado la vida del euskaldun primitivo (...). Si tras las dos finalidades indicadas no se hubiera propuesto Euskaltzaleak desenterrar la poesía popular, su empeño hubiera sido manco, imperfecto. He aquí por qué estableció otros cuatro premios para las mejores colecciones de poesías populares. El éxito ha sido, también, rotundo. Han llegado casi al millar las estrofas populares presentadas (...). De los cuatro coleccionistas premiados, tres son también sacerdotes" ("Una página renacentista (El clero euskaldun y la poesía vasca)", Euzkadi, 1932-VIII-13).

Azken Eusko Olerti Egunean (Lekeitio, 1936) Aitzolek eta Euskaltzaleak-eko antolatzaileek hiru sail eta hiru sari mota bereizi zituzten: bata ohorezkoa, olerkientzat, zilarrezko haritz-abarraz sarizatua; bigarrena, epikarentzat; hirugarrena herri-olerki sortarentzat (herriak erabiliak nahiz bertso-berriak). Poema

epikoa da, noski, garrantzitsuena, 500ptaz ordaindua, gainera. Hauxe dio Euskaltzaleak-ek sinaturiko deialdi-orriak:

“Epika deritzan ariko poema bat. Gaia, naiz edestizkoa, naiz alegiazkoa; edo-ta eusko seme ospetsu baten egintzak eta yoan etorriak. Gai ori zenbat eta erriarentzako ezagunago ta deigarriago, obe. Erri xecaren berezko edermena ta elerti-sena geiagotu-asmoz yarria baita sail au. Beraz, poema orrek erritar-antzean taiutua bear du, naiz bertsolariena baiño yantzixeago izan; ta, berok oi duten craz, abesgarria, kantagarria. Ez bedi izan luzeegia; baiña bai, abestuz, ogei bat miñutu bete alakoa”. (Eta sari-sail guztien bukaeran, azpimarratuta, eta honek olerki edo lirikarako balio du, “Aditzeko errez ez dan olerkaririk ez da saritua izango”).

Aitzolek herriaren bizitza poemetan jaso zedila nahi zuten: “Prestar a nuestro idioma el encanto del arte y de la poesía, crear veneros de belleza indígena tallandola con los rasgos vigorosos del euskera en versos y poemas; immortalizar en composiciones poéticas la vida actual de nuestro pueblo, sus ansias, sus aspiraciones, sus inquietudes y tristezas, es cooperar de la manera más eficaz al renacimiento del patrimonio de Euzkadi” (“El movimiento flamenquista y la poesía (“Día de la poesía en honor de Iparragirre””, Euzkadi, 1933-V-21). Horrela herriak bere hizkuntza maiteko omen du. Herri-poetengandik datoz gainera poeta landuak (ibid.). Horregatik guztiagatik eman zioten Orixeri *Euskaldunak* poema egiteko mandatua, antolatua eta are ordaindua izan bide zena.

Eusko Olerti Egunen bidez poesiaren maila jaso zuten, euskal literatura eta artea duinduz (El Día, 1932-VIII-4), ia musika eta pinturarekin parekatzeraino (“¿Existe una cultura vasca?”, El Día, 1932-VII-8). Emaitza bikainak lortu ziren: olerkari multzo bat sortarazi zuten Olerti Egun horiek, benetako artistak eta poeta izena merezi dutenak (Euzkadi, 1935-V-22). Hain zuzen, poetak eta olerti egunetan parte hartu zutenak nagusi dira “Aitzolenen Belaunaldia” deritzon: Lizardi, Lauaxeta, Orixe, Loramendi, P. Etxeberría, Zaitegi, Otamendi, Lekuona anaiak, Tapia-Perurena, Iakakortarena, Loidi, Erkiaga, Gaztelu, Onaindia, Enbeita, Zugasti, Arozena, Labaien, Ametzaga, Barrenso, Iraizoz, Monzon, Aurre-Apráiz. Badira beste idazle batzuk ere: Irazusta, Eizagirre, Ibiñagabeitia, Markiegi anaiak, Larrakoetxea, Manterola, Otxolua, Arruza, Ibartutxi, Oñatibia, Uzturre, N. Etxaniz, G. Jauregi...Aipatu poeten arteko batzuk ospatuak izan ziren garai hartan, baita orduan oraindik bizi ziren zaharragoak eta aspaldiko idazle zaharrak ere (Iturriaga...).

Aitzolek euskarak literaturarik ez zuelako edo landugabea zelako topikoa —Unamunok-eta indartua— deuseztu nahi zuten eta horregatik Eusko Olerti Eguneke olerki saritua gaztelerazko itzulpenaz agertu ohi zen, eta hori euskal olertia kanpoan ere balioets zezaten nahita egin zuten (“Propaganda literaria”, Euzkadi, 1931-IV-I).



## Bertsolaritza bultzatzen

Aitzolek bere kazetalanen bidez bertsolaritzak dituen balioak ezagutarazi nahi izan zituen: haren iritziz, bertsolariak eta haien bertsoak euskal historiaren lekuko eta eraikitzaile dira, karlistatekoak adibidez. Bertsolaria kronista da (Euzkadi, 1935-IX-29). Horregatik haien bertsoak bildu beharra dago (“El bertsolari (Su significación histórica y social)”, Euzkadi, 1930-IV-5). Eta hau esan eta egin zuen Aitzolek bertsoak bil eta argitaratzean, geroztik Auspoak-eta jarraitu zuten bidea irekiz.

Aitzolek bertsolari ezagun eta ezezagun, zaharrago edo gazteago batzuen berri eman edo ezagutarazi zituen. Berbarako, 1802ko bertso-gudua (“Una famosa contienda del 1802 (El Día del Bertsolari)”, Euzkadi, 1935-I-12); Zapirain, zeinen bertsoek kristautasuna adierazten baitute (Euzkadi, 1934-XI-29); “Zakarra” (El Día, 1936-I-17); Matxin lapurtarra eta bere izpiritu abertzalea I. Mundu Gerran (Euzkadi, 1936-I-24).

Euskal Bestetako bertsolaritzaren eta Lore Jokoetako bertsolaritzaren arteko diferentziak aztertu zituen (“Concursos de bertsolaris”, Euzkadi, 1931-I-7). Eta bertsolariak eta herri poetak elkarrengandik bereizi (Euzkadi, 1935-IX-29)

Eta, batez ere, garaiko bertsolarien ospea eta maila jaso nahi zuen, bertsolari txapelketen bidez, Bertsolari Guduak edo Egunak antolatuz aretoetan (honetan J. Zubimendik-eta lagundu zioten). Bertsolari Egunen propaganda egiterakoan, zertako antolatu ziren azaltzen du: bertso-guduen tradizioari jarraituz, bertsolariak bultzatzeko eta duintzeko, euskara galdu ahala bertsolaritza ere galduz baitoa (“Una nueva institución (Cantores del pueblo)”, Euzkadi, 1935-I-10). Askí ezagunak dira txapelketen emaitzak: 1935ean, Donostiako Kursaal-en, Basarri txapeldun; 1936an, Victoria Eugenia, Txirrita txapeldun, eta Uztapide bigarren. *Bertsolari-Guduak 1935-1936* liburuan biltzen dira, Aitzolen hitzaurrearekin (Euskaltzaleak, Donostia, 1936; ik. Aitzolen hitzaurrea in *Obras Completas-Idazlan Guztiak*, 3. lib., *Literaturaren inguruan*, 105-114).

Ja 1930ean bertsolari gazteak bultzatzeko elkarte bat sortu nahi duela aditzera ematen du (“¿Desaparecerá el bertsolari? (Una inquietud...)”, Euzkadi, 1930-V-6). Aitzolen arabera, bertsolaritza eraberritzen ari da, bertsolariak jakintsuagoak eta landuagoak dira (Euzkadi, 1931-I-10). P. M. Otaño goraiatzten du behin eta berriz (El Día, 1931-I-17), eredugarritzat hartuz, bertsolari ez ezik herri-poeta izan zelako. Gainera, haren liburuaren hitzaurrea egin zuen (*Alkar*, Donostia, 1930; in *Obras Completas--Idazlan Guztiak*, 3, *Literaturaren Inguruan*; ik. ere “Una dinastía de bertsolaris (A T. de Hernandezorena, el enamorado del bertsolari euskaldun)”, Euzkadi, 1935-I-19). Mendiage ere gogoko du Aitzolek, honen bertsoak bildu baitzituen argitaratzeko asmoz (“¿Qué es el bertsolari?”, Euzkadi, 1935-I-20). Ez, ordea, Iparragirre, tradizioa hautsi eta kantatu

arrotzak ekarri zituelako (Euzkadi, 1934-XII-11). Bertsolaritzaren gora jasotze honetan badirudi Aitzolek M. Lekuonaren eragina izan zezakeela.

### Kritikari eta eragile antzertian

Aitzolek bere irizpideak zituen euskal teatroari buruz ere eta, gainera, literatur-kritikari izan zen, alde batetik, eta eragile bestetik. Haren iritziz, antzertiak bere tokia du euskal pizkundean (Euzkadi, 1933-III-19). Jenero zailena da jendea irabazteko ("El arte dramático en el renacimiento vasco", El Día, 1931-XII-20). Antzertiaren bidez, poesiarenez bezala, euskaldunek bere historiako parte baten emozioa sentitzen dute ("Teatro patriótico", El Día, 1933-III-19). Antzertia, herrien bizitzaren agerpen eta, batez ere, kultura, abertzaletasun, bertute eta are fedearen eskola da ("Hacia el resurgir del teatro nacional (I Día del Teatro Euskaldun)", Euzkadi, 1934-III-10).

Kanpoko ereduak ditu gogoan: txekiar teatroa ("El despertar nacional y el teatro checo", Euzkadi, 1934-III-27); Nizako herri-teatroaren berpizkundea, langue d'oc hizkuntzarenarekin batera ("En Niza renace la lengua del Oc (El teatro popular)", Euzkadi, 1935-XI-26). Estonia, Euskal Herria baino herri txikiagoa eta pobregoa baina antzerkilan anitz bildu duena, itzulpenak barne ("Por el teatro nacional euskaldun (Hoy, el II Eusko Antzerti Eguna)", El Día, 1935-IV-28).

Zuberoako pastoralak euskal teatro berezitatat jo eta ezagutarazten lagundu zuen. Pastoralak herri-teatro jatorra eta balio artistikoduna da, zinemaren garaian ("Antziñako euskal-teatro Zuberoan (Datorren igandean pastoralak ditugu)", Euzkadi, 1936-IV-18; ik ere Euzkadi, 1936-IV-19; El Día, IV-21). Badirudi gero eta gehiago balioetsi zuela pastoralak, hasieran gai arrotz eta izpiritu exotikoagatik kritikatu bazuen ere (Euzkadi, 1934-III-10). Bestalde, pastoralen antzespenez datu ugari ezagutarazten ditu ("Carlomagno y su victoria en Euzkadi (?) (Palpitaciones del teatro medieval)", Euzkadi, 1936-V-1).

Literatur kritikari gisa Aitzolen jokaera prestua izan zen; argi ta garbi mintzatu zen, behintzat. Harentzat obra onena *Eun Dukat* da, Lekuona anaiaena; psikologikoki euskalduna, gainera ("Teatro euskeldun", Euzkadi, 1935-III-14). Hona hemen beste antzerki batzuen kritikak: *Gogo-oiñazeak*, Tene Muxikarena ("Por el teatro nacional euskaldun (Gogo-oiñazeak)", Euzkadi, 1935-V-9); *Seme ondatzallea*, Felix Markiegirena (Euzkadi, 1936-IV-9); *Garro usaia*, K. Olarrarena (El Día, 1936-V-15). Euskal teatroari buruzko iritzia, labur adieraziaz, han-hor-hemen sakabanatuta aurki daitezke haren klazetalanetan: adibidez, Euskal-Iztundearen lanaz eta Elizegi anderearen *Garbiñe* antzerkiuz (Euzkadi, 1935-XII-26). Estilo kontuetan zuzentzaile ere izan zen (*Etxe-Aldaketa*, Euzkadi, 1934-V-15).

Aitzol eragilea izan zen teatroan ere. Antzerkilaria ugariren premia ikusi zuen (“El teatro euskeldun y patriótico”, Euzkadi, 1932-XII-25). Horregatik lehenik antzerkilarian lehiaketak (500 pta) eta gero antzestaldean lehiaketak antolatu zituzten Aitzol eta Euskaltzaleak-ek, hainbat taldek batzoki eta Euskaltzale Bazkunako tokietan parte hartuz, eta gero finala Eusko Antzerti Egunean ospatuz (1934tik aurrera maiatzaren lehen igandean). Antzerkilaria xumeagoen lehiaketak ere eratu zituzten: bakarriketa, haur-jolas eta lantxoak (75 ptako saria).

Gainera, antzerki sorta bat argitaratu zuen Euskaltzaleak-ek formato es-tandarrean. Garaiko teatro-aldizkari garrantzitsuen *Antzerti* zen, Labaienek zuzendua, antzerkiak argitaratzen zituen, “Izarra” liburu bildumatik sortua, hots, G. Mujikak argitaratutako obren bildumatik (Euzkadi, 1932-XII-25). *Antzerti* hasi eta bi urtera Euskaltzaleak-en sartu zen (Euzkadi, 1934-III-10). Halaber, *Saski-Naski* aldizkaria atera zuten.

Teatro lirikoak ere bultzatu zuten, opera batzuen berremaldiak nahiz opera berrien sortzea, maila apalagokoak izan arren (*Maitena, Anboto*). Musika, dantza eta kulturarekin loturiko antzekizunak goraiatu zituen Aitzolek, esaterako Oldargi eta M. Sotarenak (“Latido de un pueblo a través del arte”, Euzkadi, 1930-IX-3). Orobat Alzaga, Labaien, Lizardiren lana (“El arte dramático en el renacimiento vasco”, El Día, 1931-XII-20). Baita teatro abertzalearen bidean eginiko urratsak: *Txanton Piperrri* (“Teatro patriótico”, El Día, 1933-III-19), *Libe* (“Resurgimiento del teatro nacional (Estreno de “Libe”)”, El Día, 1934-III-6). Aitzol eta Euskaltzaleak-en beste ekintza batzuk teatrogile zaharrei eginiko omenaldiak izan ziren: Alzagari, esaterako, Euskaltzaleak-ek antolatua (El Día, 1931-XII-20).

Teatroaz landa, eleberririk eta kontalariez ere jardun zuen Aitzolen lumak. Anabitarte eta haren *Donostiaz*, esaterako (“Donostia”. El novelista euskeldun”, El Día, 1934-III). Edo Kanpion (Euzkadi, 1935-VI-19), Tx. Agirre, Urruzuno (Euzkadi, 1931-III-13) eta beste. Euskal arima ikertu nahi izan duten frantses eleberrigileak ahanzi gabe (Loti, F. Jammes, Lichtenberger), horiek Lhanderen eleberrietan baitute eredu bikaina (Euzkadi, 1935-VII-9 eta 11).

## Literatura eta kazetaritza

Badu zeresanik Aitzolek kazetaritza eta literaturaren arteko loturez. Harentzat kazetaritza, euskeraz irakurtzen eta idazten ikasteko eskola izan da. Adibidez, *Argia* asterokoak kazetaritza eta literatura elkartu eta giroa sortu zuen literatur aldizkariak (*Euskal-Esnalea*) elikarazteko eta are Euskaltzaleak taldea bera sortzeko (“Argia-Luz (Escuela de euskerismo)”, El Día, 1932-IV-26).

Euskal literaturgile franko kazetari izan baitira, Aitzolentzat poesia ez da alferreko denbora galtzea; aitzitik, gizon landuentzat idazten da, eta kazetaritzaren eta lanaren osagarria da, bere aberriagatik lanean ari denaren ordainsaria, honetan Lauaxeta eredugarri izanik, *Arrats Beraneko* aberri eta gizarte kutsuko olerkiek erakusten dutenez (“Poeta, entre luchas y crisis (¿Perder el tiempo?)”, *El Día*, 1936-VI-16).

Kazetaritzaren bidez (*Euzkadi*, *El Día*) euskal literatura bultzatu nahi zuten, herri-poesiaren joera lagunduz (“La poesía popular y el alma de la raza”, *Euzkadi*, 1932-VIII-24). Aipatu egunkari, astekari eta aldizkarietan garaiko euskal idazleen berri ematen da eta Aitzolek berak hainbat eta hainbat ezaugarazi zituen: Lauaxeta, Orixe, Lizardi eta Labaien horien artean.

Euskal literaturak kazetaritzarekin lotura estua izan du beti, literaturako kontuak eta literaturlanak (ipuinak, poesiak) egunkari eta aldizkarietan agertarazi baitira (*Eskualduna*, *Euzkadi*, *El Día*, *Eguna* ...), eta bide honi eutsi beharko litzaioke, gure iritziz.

Aitzolen arabera, euskara prestatu beharra dago kazetaritzarako, “kazetaritza delako literaturarik eragingarriena, frutukorrena euskara sendotzeko. Euskal egunerokoa litzateke euskararen eustaga, katedra eragingarriena eta hedabide dinamikoena” (“La expansión vasca en el Norte (“Elgar”-“Aintzina”)”, *Euzkadi*, 1935-I-16). Euskarazko kazetaritzaren eredugarritzat Iparraldeko *Aintzina* jartzen du, *Eskualerrizale* deiturikoen kazeta, bertan euskara ohorezko tokietan agertzen baitzen, editorial nahiz kultura-, ekonomia-, gizarte-, politikagai nagusietan (ibid.).

## Literatur-euskara

Aitzolek ongi zekien arazo nagusietarik bat euskara egokia erabiltzean zetzala. Haren iritziz, poesian ere herri-euskara erabili behar zen, nahiz garbitua: “Si la poesía tiene alguna misión, esa es la de provocar el sentimiento del pueblo y la de hacer crujir las fibras del sentimiento racial. Sólo lo lograrán, sin embargo, utilizando el euzkera del pueblo, aun cuando purificado; pero con la lozanía y la frescura con que el pueblo lo usa” (*Euzkadi*, 1935-V-22).

Euskara egokiaren kontu hau kazetariak jarria zuten jada, herri-euskaratik hurbilekoa eta denek ulertzeko modukoa eta behar baitzuten, eta aldi berean landua. Kirikiñoren irtenbidea, adibidez, *Euzkadi* egunerokoan, bi euskara modu ezberdin erabiltzea izan zen: bata, aranatarra, idazle abertzaleen human zebilena baina jendearen ahotik urrun; eta bestea, jende arruntaren ahotik hurrekoa, *Abarrak* liburuan erabilia. Bigarren bide honek arrakasta izan zuen; besteak, ez. Helburua euskaraz irakurtzera bultzatzea bazen, garai hartako euskara aranatar eta garbizaleak, orohar, hori lortu zuenik ez dugu uste. Altuberren kritikek ere hori adierazten dute, eta ildo beretik Aitzolene, ikusi dugunez.

Aitzol euskararen batasunaren aldekoa izan zen, Lizardi eta Jautarkol bezala. J. Garatek hitzaldi batean agertutako joerari, hots, euskalkien aniztasuna zela eta euskal kulturaren adierazpide gisa gaztelera erabiltzekoari, honela erantzuten dio: “Batzuek, itsu-itsuan, bultzatu egiten dute aniztasun hau. Hauen jo-kaera Unamunorena baino kaltegarriagoa da. Euskara ezin izango da bizi literatur- eta irakaskuntz-batasunik gabe. Besterik sinestea, denbora alferrik galtzea da” (“¿Existe una cultura vasca?”, El Día, 1932-VII-8). VI Uda-Ikastaroetan Lizardik proposamenak egin zituen idazleek batasun literarioaren alde egiteko; batasun grafikoa ia jadesia zela-eta, batasun fonetikoari premia larrikoa zeritzon Aitzolek, Jautarkolek bezala.

Aitzol eta Euskaltzaleak-ek literatur batasunaren alde egin zuten, teorian bederen, Euskaltzaindiarekin bat etorritik, eta honen bidetik, hau da, garai hartan Azkuek bultzaturiko *Gipuzkera Oso*tuaren bidetik (Yakintza, III, 473); El Día, 1936-VI-28; ik. ere Euzkadi, 1935-XII-26). Aitzolek Azkue, pizkundearen figura erraldoiak, euskara trebatzeko hiztegitintza, literatura, kazetaritza eta beste arlo askotan eginiko lana goraiatzen du, Azkue aita-semeen omenez Euskaltzaleak-ek antolatu omenaldia kari (“El coloso del renacimiento euskaldun (Resurrección María de Azkue)”, El Día, 1936-VI-28).

### **Pizkundera arte eta beste kultur arlo batzuetan**

Aitzolek euskal arteak nondik nora jo behar duen jakitera ematen du, gaingiroki. Haren arabera, euskal artea euskal arimatik sortzen da (“¿Por dónde debe ir la pintura?”, El Día, 1935-IX-4). Artea eta folklorea lotuta daudela-eta, errito eta eske-kanta, Olentzaro, Erregen eta beste festa-egunen inguruan, lotura horiek erakutsi nahi ditu (“Una tradición vasca de Año Viejo”, Euzkadi, 1935-I-9; “Los Reyes Magos a través de la poesía popular euskaldun”, El Día, 1936-I-5). Guztiz goresgarritzat jotzen du Azkueren *Euskal*erriaren *Yakintza*, erraldoi bakarti baten lana (El Día, 1935-IV-21) eta Euzko-Folklore bazkunarena (Barandiaranen zuzendaritzapean). Eta bazkun honek Mendizale Batzako gazteei kanta zahar, esaera, edesti, dantza eta gaineko jakingaien bilketan lagun diezaiekeela iradokitzen du, galderak nola egin, zer jaso etab. erakutsiz (“Gipuzkoa Mendizale Batzako gazteei”, El Día, 1936-V-6).

Aitzolen arabera, euskal artistek folkloregaiak artistikoki lantzen dituzte. Euskal musikarieren artean Aita Donostia eredugarri da: ez du, xoil, biltzen, herriaren arima ikertzen eta herriaren arima artistikoa ere eraikitzen du (“Artista e investigador (La poesía y la música popular vasca y el niño)”, El Día, 1933-X-3). Pinturan Flores Kaperotxipik euskal arima jasotzen duen bezala. Arte moten arteko loturak, musika eta poesiaren artean, esaterako, aipatuak dira Aitzolen artikuluetan (“Escuela de arte patrio (El canto popular)”, Euzkadi, 1934-VI-1). Garai hartan musika eta pintura goi zebiltzan, jakina denez.

Euzkadiren kultur eraikuntza, hori zen, Aitzolen iritziz, abertzaletasunarentzat arazo larrienetarik bat (Euzkadi, 1936-III-20). Kultura gabe abertzaletasunak ezin du bururik jaso: “Para mí una nacionalidad sin cultura patria no es sino un cadáver” (El Día, 1933-IV-26). Poesia kultoan goi omen gabiltza, eta etnologian eta ikerkuntza historikoetan hobetu da (ibid.). Antropologian eta arkeologian hasi gara, Barandiaranen *Lehen euskal gizona* liburuak erakusten duenez (Euzkadi, 1934-VII-26). Pentsalariak eta filosofoak ere badira (“Nuevos rumbos de nuestro renacimiento (Influencia del pensamiento vasco en la cultura)”, El Día, 1934-III-28). Eta euskal soziologian hor dago Thalamas Labandibarren liburu, Zabalakundeak argitaratua (El Día, 1935-X-9). Nolanahi ere, euskal kulturaren euskal elizgizonek esku handia izan dute (“La cultura del clero vasco (Homenaje)”, Euzkadi, 1935-VIII-25).

## Abertzaletasuna eta pizkundea

Aitzolek artikulu ugari idatzi zuen abertzaletasunaren inguruko gaiez, horietako asko guztiz ideologikoak; beste asko, hein batez ideologikoak izan arren, Euskal Herriko gertaeren aurrean abertzale eta kristau bidea erakutsi nahi dutenak dira. Beste artikulu batzuek, ordea, organizatzeraz bultz egin nahi dute.

1. Artikulu ideologikoak, solasgaien arabera, honela multzoka ditzakegu:

1.1. Karlismoa, nazionalismoa, nazionalismo ematua, errejionalismoa. Abertzaletasunaren aitzindariak: Xaho (El Día, 1933-VI-8); Kanpion, nazioaren idearena (“Los predecesores de la idea nacional (Precursor y Maestro)”, Euzkadi, 1935-VI-19); S. Arana, Maisua: haren biografia, Jemeinen arabera (“Monumento al Maestro”, Euzkadi, 1935-XII-20); Kanpion eta Arana batera dabiltza “vascoiberismoa” ez bultzatzean (“Sabino de Arana y Campión coinciden (Los nuevos cruzados del vascoiberismo)”, Euzkadi, 1935-XII-22); foruzaleatasunaren zuzia Aranak jaso zuen (“Filosofía del movimiento foral”, Euzkadi, 1936-V-16).

Euskal historiako gertaerak erakusle (“También antaño hubo alcaldes valientes (Los municipios vascos de ayer)”, Euzkadi, 1934-IX-13); Historiaren Akademiaren beharra (“Progresos de la historia vasca”, Euzkadi, 1934-XII-26); gure historia ezagutu beharra, eta horren zailtasuna (“La muerte de la independencia en la Euzkadi continental”, Euzkadi, 1935-VIII-4).

1.2. Abertzaletasun mota desberdinak. Aitzolek bikoteka sailkatzen ditu mota horiek, bitara errendatzen ditu, elkarren kontra jarriz: alde batetik herri zapalduen abertzaletasuna (“nacionalismo renacentista de los países oprimidos”), abertzaletasun zilegizkoa Eliza Katolikoaren dotrinaren arabera, edo abertzaletasun “kristaua”, eta, bestetik, abertzaletasun “esajeratua” (esaterako, Italiako faszismoa, Tirol eta esloveniarrak zapaltzen dituen edo Alemaniako abertzaletasun “paganoa”, atea (ik. Euzkadi, 1932-IX-11, 13, 18, 28 egune-

takoak). Edo bestela, alde batetik abertzaletasun “arrazoizkoa” eta, bestetik, internazionalismo “materialista” eta “ateoa”. Edo abertzaletasun “benetakoa” eta “sasi-abertzaletasuna” (Euzkadi, 1935-II-26). Komunistek nazionalitate zapalduekin erabili taktika ere salatzen du (“Euzkadi, 1933-IV-6); horiek ez dute euskara beren kazetetan zaintzen (El Día, 1936-VI-4).

1.3. Mundura begira, beste herrialdeetako nazio arazoak aztertzen dituzten artikulu asko idatzi zituen Aitzolek. Esaterako, euskaldunentzat eredugarri diren abertzaletasun, egintza eta figurei buruz: Irlanda eta bertako heroiak, hots, De Valera, Pearse... (Euzkadi, 1933-II-21; El Día, 1933-IV-33; El Día, 1935-IV-27). Bereziki Katalunia, bere nortasun politikoa ezagutua eta bere hizkuntza ofizial bihurtua izatea Euskal Herriak baino aurretik lortu duena (El Día, 1932-IX-15); herri honekiko elkar laguntasuna komenigarria da (Euzkadi, 1934-VI-22). Galiza (1936-VII-8). Filipinak, India, Serbia-Kroazia (Euzkadi, 1935-V-17, 21) eta hango heroiak. Gutxiengo nazionalak, euren eratze kongresu etab.: Eslovenia, Tirol, Baltikoko Estatuak; Home Rule Irlandakoa eta euskal estatutua... Abertzaletasunak Txinako nazionalisten alde jokatzeko du eta japoniar imperialismoaren eta komunismoaren aurka (El Día, 1935-XII-29).

Komunismoaren peko herrien abertzaletasuna: Ukraina, garaiko tragedia handiena omen denaz maiz idazten du 1933-1934-1935 urteetan. Aitzolek Ukrainako Tokari enbaxadorea, Donibanen zegoena, bere aberri esklabotuaren propagandari lotua eta euskaldunen laguna ezagutu baitzuen (Euzkadi, 1935-IX-20).

Euskal Herriko kontuez aritzean, munduko eta Estatuko beste herri zapalduak begira eta eredu bilaketan ziharduen, kanpotik zer gauza on ikas zitekeen aztertzen. Bereziki Kataluniari begira, herri honen eta besten pizkundeak Euskal Herrikoari lagunduko ziolakoan, eta elkartasun eske. Katalunia eta Galizako kontuez landa, Peninsulako beste eskualdeetarako ez da agertzen.

Euzkadi Nazioen Elkarte delako erakundean nola ikusten zuten eta gutxiengo eskubideez zenbait artikulu idatzi zituen. Horietako batzuek euskarak epaitegietan jasaiten duen tratua salatzen dute. “A un pueblo se le debe administrar justicia en su propia lengua” artikuluko azken hitzak hauek dira: “Ante la Sociedad de las Naciones, Euzkadi es una minoría racial y lingüística” (El Día, 1933-III-2). Europakoei onartzen zaiena zergatik ez Euzkadiri?, galdetzen du beste artikulu batean (“Lo que en la Europa culta se hace. A cada pueblo se le juzga en su lengua propia (Mirando a Ginebra)”, El Día, 1933-III-5 eta El Día, 1933-III-9). Euzkadi Nazionalitateen kongresuetan, 1930tik aitzina; Euzkadiren lagun bat: Ammende estoniarra (El Día, 1933-IV-23)...

Nazionalismoa eta internazionalismoa gai garrantzitsua da Aitzolentzat: Aita Vitoriaren arabera, nazionalitateen anaitasun armonikoa defendatzen du, zuzenbide naturalaren argitan. Honetan Aitzolek ideologo gisa eztabaidatzen du (Euzkadi, 1935-II-23). Munduan ezagutarazi behar da euskal abertzaletasuna, Pariseko erakusketa aprobetxatuz (Euzkadi, 1935-VI-7). Nazioarteko

gaiak Aita Vitoriaren arabera: gerra norberaren burua defendatzeko da bakarrik zilegi (El Día, 1935-IX-22; Euzkadi, 1935-X-11).

1.4. Euskal demokrazia politiko eta sozialaren inguruko artikulu-saila (Euzkadi, 1935-III-20, 23, 26, 28, 30, 31; 1935-IV-3, 5, 7, 10, 12, 16, 17, 20, 29); Larramendi eta demokrazia (El Día, 1935-VII-6, 9, 11). Artikulu hauek interesa sortarazi omen (El Día, 1935-VIII-18). Esan beharrik ez dago, Aitzolek —eta garaiko jeltzaleek— euskal kristau demokrazia dute xedetzat.

2. Euskal Herriko gertaerei atxikiagoak, jokabidea erakusten dutenak:

2.1. Euskal Herriaren batasuna eta euskal anaitasuna, bereziki Nafarroaren arazoa: Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko harremanak; iraganeko anai-arteke gerren ordeztasuna eta zorraren pagamendua (El Día, 1935-VI-9; Euzkadi, id.).

Iparraldearen Pizkundera: Zazpiak bat (El Día, 1932, IX-14). P. Lotiren idazlanetako Euskal Herriaren irudi geldoa; Iparraldeko pizkundera kultur mugimenduan nabari da (Blazi, Elissalde...). Eskualerrizaleak: lotura orokorra, abertzaletasuna, katolikotasuna, gizarte ekintza (Euzkadi, 1933-I-13). Aitzolek Eskualerrizaleak taldea goraiatzen du, haien idearioa eta jokabide zuhurra. Ibarregarainen jarrera agerian uzten du: haren “Eskualdun ona, bethi prantses on” Aitzolek “Eskualdun ona bethi eskualdun huts” bihurtzen du. Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoako historiak ere artikulu franko idatzi zuen (Euzkadi, 1934-VIII-7, 12; Euzkadi, 1935-VIII-24, 28; IX-6, 10, 13, 15, 20, 24, 27; X-20, 24). Herriaren arima piztuz joan ahala, euskara hiltzen ari omen da (Euzkadi, 1934-VIII-21). Artikulu hauetan Aitzol, Eizagirre eta bestek Iparraldean kultur ekintzetan parte hartzen dutela garbi ikusten da (ik. 1935eko irailkoak).

2.2. Komunismoaren aurka, abertzaletasuna. Katolikoak eta abertzaleak jende behartsu eta ezeukiari lagundu behar dio, ezinbestez, katoliko eta abertzale baldin bada (El Día, 1936-VI-21). Erljio-krisia: katolikotasunaren ahultzea eta komunismoaren indartzea gurean; honen kausak eta nola irabaz ihesi doazen langile gazteak, emakumeak, haurrak; komunisten pedagogia haurren arimaz jabetzeko (El Día, 1936-IV-4; artikulu honetan Aitzol nahikoa etsita agertzen da). Komunismoa edo faszismoa dilema gisa jartzea sinplekeria omen da, hirugarren indar bat ere badagoelako: abertzaletasuna, alegia.

Ezkerra eta abertzaletasuna. Sozialisten jokabidearen kritika: “sozial-fasizistak” (!) deitzen ditu, Estatuari eusten diotelako. Komunistak utopikoak eta sukursalistak dira, ez dira benetako abertzaleak. Euskal Herriko alderdi ezkertar batzuetan (EAE-ANV), ordea, abertzaletasuna ermetzen pozik ikusten du. Abertzaletasunaz —gai trszendentala berau— eztabaidatzera gonbidatzen du EAE-ANV (El Día, 1933-IV-22).

2.3. Estatutuaz —Lizarrakoaz nahiz 1936an onartzekoa zenaz— baditu artikulu batzuk. Euskara ez doa garapen politikoaren parean (ik. El Día, 1931-VII-14; El Día, 1936-V-29)



### 3. Azkenik, organizatzaera bultz egiten dutenak:

Gazteriarri antola eta era dadin —arlotu guztietan eta erakunde abertzaleen pean— dei egiten dio, hortik sortuko bailitzateke euskal herriaren elitea: “No debiera haber en el País Vasco un solo aspecto, ni matiz de actividad o afición juvenil, ni cultural ni deportiva, ni profesional, que no estuviera encauzado y controlado por una organización patriótica. Esta labor, además de su gran rendimiento proselitista, tiene la ventaja notable de ir interesando y formando en la misión directiva a una multitud de jóvenes que serán en el mañana la élite del pueblo euskeldun, los jefes de la patria” (“Juventud y organización”, Euzkadi, 1932-II-25). Honen eredia Kataluniako Palestra omen da, kataluniar gazteriarren katalaneratze osoaren aldeko lanean ari dena. Unibertsitate-ikasleak antolatu behar dira pizkunde giroa sustatzeko eta euskal unibertsitatearen alde egiteko. Palestrako gazte horiek kultura bidetik ari dira, obra klasikoak katalanera itzultzen etab. (El Día, 1932-VIII-8).

Emakumeek politikarekin duten ikustekoaz ere idatzi zituen artikulua bazuk, euskal emakumeak historian erakutsi duen jokoera abertzaleaz, esaterako (Euzkadi, 1935-VII-13, 16, 19). Hala ere, Aitzoleren arabera, emakumearen zeregina ez da politikagintza, abertzaletasunean, proselitismoan, gizarte-laguntzan lan egitea baizik. “Augusta Larralde” *Aintzinako* idazlea eta Atarratzeko Begiraleak aitzindari omen Iparraldeko euskal emakume abertzaleen ekintza eta antolaketan (Euzkadi, 1935-IX-24).

### Euskal gizarte kristau eta justiziazkoa

*El Día* gizarte gaiak erabiltzen eta kanpaina egiten hasi zen 1931ren bukaerarantz, kazetako sail horiek gero eta interes handiagoa sortarazten zutela (El Día, 1931-7-19). Aitzolek gizarte-kontzientzia zorrotza erakusten du eta langile gazteen edo gazteria langilearen egoeraren kezka bizia, bazter utziak baitaude (El Día, 1932-I-24). Langileen arazoengatik inguruko artikulua nagusi dira, baina euskal gizarteko gainerako sektoreenak ez ditu ahazten.

JOCVA eta euskal sindikalismoaren (hau da, SOV edo STV-ELAren) premia aldarrikatzen du, gazteak batez ere izanik gogoan. Sozialismoaren aurka agertzen da, kontzientzia nazionala desegiten duelako. Euskal sindikalismoaren bideen artean greba aintzat hartzen du, baina ekonomiari minik egin gabe (El Día, 1932-XII-4). Euskal sindikalismoak tradizioan oinarritu behar luke (El Día, 1932-XII-18). Aitzolek solidarioen gidari moduan dihardu sindikatoan intelektualen egitekoa zein den iradokiz, edo profesio liberaletako propagandisten beharra ohartaraziz (El Día, 1933-I-25, 26). STV-ren II Kongresua (El Día, 1933-V-5). Acción Católica STVri laguntzen ari da itsas gizonak kristautzen (El Día, 1935-V-7). “Papelera”ko langileak STVn sartzen dira (El Día, 1935-V-23). STV-ELA elkartasunean eredugarri da, baina lagundu egin behar zaio,

dirua emanez gutxienez (“Eusko Langille” y “Euzkadi Roja” (¿Qué hace usted para detener el comunismo?”), *El Día*, 1936-VI-21). Azken artikulua honetako zatitxo bat ezarriko dugu, Aitzolen abertzaletasuna langilezaletasunari lotua zela erakusteko:

“La triple fuerza que ha de salvarnos es la del obrerismo, el patriotismo y el catolicismo (...). El que no seas obrerista, ni el que te tengan por tal, nada te importa. ¡Ah! pero eres excelente patriota vasco. Un cristiano sincero.

Mira, amigo: te equivocas. Si no eres decidido propulsor de la masa obrera, de la multitud de los desheredados, de los que bregan en trabajos más duros que el tuyo, no presumas ni de católico, ni de patriota”.

Euskal Herrian langileentzako Gizarte-Unibertsitatea (Universidad Social Obrera Vasca) martxan jarri beharko litzateke, Ingalterra, Alemania eta Belgikan bezala (*El Día*, 1933-II-19). Kapitalismoaren kritika, S. Aranagan oinarrizuz (*Euzkadi*, 1934-XII-21). Erljioaren krisia aitortzen du, izkutatu gabe (*El Día*, 1935-V-10); horregatik langileak, arrantzaleak, laguntzarik ezaz...komunistengana ihesi doaz.

Nekazarien sindikazioaren premia, haien egoera duintzeko; Euzko Nekazarien Batzak 3000tik gora lagun, 5000tik gora ordaintzaile (*Euzkadi*, 1935-II-28). Arrantzakeen sindikazio premiaz (“El arrantzale y la miseria. ¿Hacia el comunismo?”, *El Día*, 1931-XII-6; *El Día*, 1935-V-10).

Inmigrazioaz eta behinolako emigrazioaz —Euskal Herriko arazo garrantzitsuak— artikulua saila idatzi zuen (ik., adib., *Euzkadi*, 1934-XI-16, 18). Ikasle euskaldun eta katolikoek elkarteak bultzatzeaz ere zenbait.

Eliza Euskal Herrian. Erljio-ordena batzuen lan eredugarria euskal kulturaren: Lekarozko kaputxinoak (A. Donostia, Olazarán de Estella, A. Alzo). Elizgizonen kezken lekuko: erljio-ordeen jazarpena (*El Día*, 1931-VIII-14). Familiaren krisia eta erremedioa: errosarioa (*Euzkadi*, 1934-X-13).

Aitzolen pentsabidean euskaldun eta katolikoa izatea batera doaz (gogora bedi garai hartan abertzaletasun akonfesionalaren aldekoak ere bazeudela, EAE-ANV adibidez). Eliza katolikoa eta misioen ingurukoak: katolikoa ekimen-gizakia da; misioak eta abertzaletasuna ez doaz elkarren kontra (*Euzkadi*, 1935-I-4). Misiolari ospetsuen mendeurrenak; Lavigerie (*El Día*, 1935-X-20). Eliza katolikoak herri zapalduen alde lan egin duela, eta gizarte arazoetan ere bai, erakutsi nahi du, etxeok eta kanpoko adibideak ekarriz (Eslovenia). Eliza katolikoak herri-hizkuntzak babesten ditu (Kroazian, Eslovenian).

Katolikotasunaren eta euskaltzaletasunaren aldeko burrukan irakaskuntza pribatuaren aldeko “gurutzada” aipagarria da, batez ere 1932tik aurrera; *El Día* kanpainari ekingo omen dio (*El Día*, 1932-X-4). Euskal Gurasoen Alkartasuna, gurasoak bere seme-alaben eskubideen alde (*Euzkadi*, 1936-IV-29).

Andremariaren ingurukoak: Aita Lizarralderen idazlanak (El Día, 1935-VIII-8). Sortzez Garbia eta Etxepare; Gipuzkoan eta Euskal Herrian Andre-maria zer den (Euzkadi, 1935-XII-8; El Día, id.). Kristau izpiritua Euskal Herrian (El Día, 1936-V-10).

### Aitzolen kazetagitza eta idazkera

Aitzolek egunkari abertzale eta katolikoetan idatzi zuen batez ere. Gainera, prentsa katolikoa egin nahi zuen (*El Día*), kazetari katoliko eta euzkotar gisa jardunez, eta ikuspegi bikoitz hau aplikatzen du beti. Kazeta horien irakurleak, gehienak abertzaleak eta katolikoak izango ziren; eta orduan, orain baino gehiago, bakoitzak bere egunkaria irakurri ohi zuen.

Aitzolek, gehienetan, edo gertaerak printzipio eta ideia nagusi batzuen araberaren epaitzen ditu, mezua garbi adieraziz, nola jokatu behar den erakutsi nahiz; edo bestela ideioek zabaldu nahi ditu eguneko gertaera nahiz ospakizun, egintza edo ekintzak aipatuz, propagandista legez jardunez, eta, batzuetan eztabaidatuz ere bai, polemista gisa (kasu honetan gaiak orokorragoak dira: nazionalismoa edo abertzaletasuna, euskal historia, kristau izpiritua Euskal Herrian...). Tonua serioa da beti, eta batzuetan garratz samarra.

Artikulu ideolojikoetan batez ere, franko aldiz, pasaizu batetik abiatzen da eta gai bat baino gehiagok mintzaten, egilearen aipatu ikuspegi ideologiko eta bikoitza ardatz dela, haren inguruan lotzen baititu gaiok: folklorea, kirola, euskara, bertsolaritza, gai aberkoiak...ikuspegi orokor baina aldi berean abertzalea emanez. Adibidez, Emakume Abertzale Batza eta eske-bertsoak (El Día, 1935-XII-24); edo pelota, euskara eta abar. Eta beti Euzkadiren batasunera joz, espresuki dioenez (El Día, 1936-VI-13).

Polemikoa da batzuetan, Barojarekin, esaterako, honen antiklerikalismoa-gatik (“Los clericales y Don Pío”, El Día, 1932-IX-8). Gai sozialetan ere bai, adibidez solidarioen alde eta sozialisten edo komunisten aurka (El Día, 1932-XII-4).

Aitzolen artikuluek egitura oso garbia dute: izenburu labur eta indartsua, mezua adierazten duena —eta horretan maisua zen— + azpiizenburua, zertaz den zehatzago azaltzen duena —hau ere garrantzitsua—. Artikuluaren hasieran printzipioak edo gertaerak nahiz egitateak azaltzen ditu. Artikuluaren gorpuztean printzipioen aplikazioa egiten du, edo bestela gertaeren analisisa. Bukacarran epaia, oso argi emana (“behar da”), edo mezua garbi adierazita, askotan proposamen berri eta zehatzak eginez.

Hil-ondokoak eta kronika antzekoak ere idatzi zituen. Hil-ondokoak askotan poeta eta idazle zenduei buruzkoak dira, adib. Lizardi (El Día, 1933-III-14), Loramendi (El Día, 1933-III-25), Uranga (Euzkadi, 1934-XII-29), Matxin (Euzkadi, 1935-IV-26).

Kazetari-idaztanceraz den bezainbatean, esaldi laburrak eta irakurleari el-karrizketa estiloan zuzentzen daki. Pertsonaia eta paisaien deskripzioak maite ditu; irudiak, metaforak —pentsamenduaren muina era ederrean adierazten du-tenak—. Adibidez, Siberiako hartz zuria bere besoak zabaltzen bitimak besar-katzeko, hots, komunistek katolikoei buruz duten zabaltasuna irudikatzen (El Día, 1936-VI-7). Eta konparazioak, euskal tradiziokoak, noski. Batzuetan, are ixurpen lirikoak.

Aitzolen estiloa atsegina da, arina. Esaterako, askotan bertsolarien eta poe-ten pasaizu eta estrofa tartekatuz lortzen du atsegintasun eta bizkortasun hori. Aitzol eta Orixe ez bide zetozen bat kazeta artikulua idazteko moldeaz, La-baienen arabera, eta eztabaida sutuak izan omen zituzten. Orixerenak astunak, pisuak ziren (gainera Aitzolek zakarrontzira bota zituen Orixeren batzuk eta honek ez bide zion barkatu). Dena dela, eta Aitzolenak artikulua oso ontzat di-tudan arren, kontutan har bedi, idazteko moduak ere aldatu egiten direla eta Aitzolen estiloa ere, konposizio estilo klasikoa dela, gero eta garrantzi handia-goko kontuak egituratzeko modua, eta egun kazetari estiloa idazketa estilo “eraikitzaile” honezaz bestelakoa dela, kontagaien garrantziaren arabera gara-zen dena eta bizkorragoa.

Ideiak azaldu edo defendatzerakoan iturriak eta autoritateak (enziklikak, garaiko liburuak, batzuetan kanpoko egunkariak; zuzenbide eta demokrazia kontuetan Aita Vitoria) franko erabiltzen ditu, nahiz gehienetan katolikoak eta joera berekoak. Esparru honetan jakintza nahiko handia erakusten du. Autori-tateak katolikoak dira, *El Díakoek* prentsa katolikoak egin nahi baitzuten. Egi-tate eta egien kausak bilatzen ditu, eta egiak aitortzeko beldurrik ez du. Azal-penak ematen ditu. Mamitsua da, edukina duena, informazioa eta batez ere iritzia. Iritzia ematerakoan kalifikatibo finko eta eztabaidaezinak, eta sailkapen tipikoak egiten ditu, esan dugunez, pentsamentua gehiegi eskematizatuz, nahiz gauzak azaltzen dakien. Beste askotan ospakizun eta gertaeren propaganda da.

Hala ere, Aitzolen artikulua informazio iturri interesgarriak dira askotan, nahiz dela euskal literatura eta idazleez, adierazi dugunez (ik., adib., El Día, 1933-VI-16 edo Euzkadi, 1934-XI-29), nahiz dela gizarte gaiez ( ik., adib., STVren afiliazio-kopuruaz El Día, 1932-XI-13). Egilearen beraren bizitza eza-gutzeko ere iturri oparoa dira: esate baterako, hark irakurritako liburu, bidaia, harremanen eta abarren berri ugari bil daiteke.

Euskara pixka bat sartzen du gaztelerazko artikuluetan, izenburua euskaraz jarriz edo estrofa batzuk edo zerbait. Horrek esan nahi du irakurle askok uler-zen zutela euskara.

## **Eta euskaraz?**

*Eusko Olerkiak* liburuetako hitzaurreak alde bat utzita, eta orobat misioei buruzkoak (ik. *Obras Completas-Idazlan Guztiak*, 4. lib.), Aitzolen euskarazko artikulua gutxi dira: dozena bat, gutxi gora behera. Ia guztiak azken urtee-takoak, batez ere 1936koak. Hau Aitzolek, gero eta gehiago, hizkuntzarekiko

zuen kezka adierazgarri da. Zein orrialde eta tokitan jarriak dauden —hau garrantzitsua baita kazetaritzan— zehatzago miatu beharko litzateke. Tamalez, *Obras Completas-Idazlan Guztiak* delako edizioan euskarazko artikulua hutesz beterik datoz.

Gaiei dagokionez, gehienak euskararekin lotuak dira: euskara alderdi berruan (“Abertzaleak eta euskera”, El Día, 1935-VI-16); euskara hauteskunde garaian (“Euskera Erriko-Etxetara”, El Día, 1936-IV-3). Erdal izenburudun baina euskaraz idatzitako artikulua batean *El Día*n euskarak duen erabileraz dihardu: euskaraz irakurle gutxi dagoela, irakurleek ez dutela euskarazko artikulurik eskatzen, horregatik ezin dela gehiago idatz, irakurle gehienak ez direla benetako euskaltzaleak, horregatik ito zela Lizardiren proiektua —irakurleen laguntza faltaz— eta errealitatea garratza dela (“¿El Día” euskaldun?”, El Día, 1936-VI-23). Beste artikulua batean pelota txapelketako berriak euskaraz idazteak kirolzale batzuk euskaltzaletu dituela dio; gazteria jolascan euskotartu eta euskaltzaletu daitekeela, pelota jokoa onuragarria dela Euzkadiarentzat, Elisalde adiskide min eta pelotazaleari entzun zionez (“Euzkadiko Pelota Txapelketa”, El Día, 1936-VI-13).

Euskal literaturazko gehienak herri-literaturaz ari dira (kantu, bertso eta pastoral): “Zakarra” bertsolaria (El Día, 1936-I-17); Gipuzkoa Mendizale Batzako gazteei baserri-izenak, herri-jakintza gaiak eta kantuak biltzeko deia (“Gipuzkoa Mendizale Batzako gazteei”, gutun bati erantzunez egina, El Día, 1936-V-6); pastorala (“Antziñako euskel teatroa Zuberoan (Datorren igandean pastoralak ditugu)”, Euzkadi, 1936-IV-18). Garaiko olerkari eta idazle gehienak euskara ulerkaitza garratzki gaitzesten duen artikulua ospetsua ere hor dago (“Antziñako oitura zarren piztutzea”, El Día, 1933-II-5). Euskaltzaletasun, eusko gogo eta arrozkeriaz ari da beste batean, VII. Euskal Astea kari (“Euskel Astea, bidezkoa ote da?”, El Día, 1933-X-1)

Politika eta erlijio-gaiez ere badu pare bat. Estatutoari buruzkoan, aurki onartuko den ustea adierazten du, Estatutoak denok uztartuko gaituela-eta: “Gu nagusi, gurea errua. Zenbat eta eskubide geiago gureganatu, areago lanera, zintzotasunera eta garbitasunera lotuagoak” (“Lanera lotu gaiten”, El Día, 1936-V-29). Eliz ospakizunak direla-eta idatziak: Erramu Igandea (El Día, 1935-IV-14); S. Inazio (“Loyola”tar Iñaki Deuna ta euskera”, El Día, 1935-VII-31); Luistarren erromes eta ohiturak (“Kristau-euskeldun gaztedi kementsua”, El Día, 1930-X-14).

Idaztankerari dagokionez, erderazko artikuluetan bezala esaldi laburrak, el-karrizketa estiloa eta ahozkotik hurreko euskara darabil, zerbait apainduta. Konparazioak euskal izadi eta tradizioetik hartuak dira. Eta bere esanak esaera zaharrez zirtatzen ditu. Jendearen ahoko euskararen hurrekoan mintzatu zitzaion irakurleari, zentzu handiz jokatzuz (honetan behintzat ez zen arantarra). Artikulu gutxitxo idatzi zituen arren, apur horiek ongi eginak dira: tori, erasburuztat, “Euskera erriko-etxetara” aipatua (El Día, 1936-IV-3).



## AITZOL ETA EUSKALTZALEAK

*Tolosan 1996-X-17an*

*Lurdes Otaegi Imaz*

Gaurko egunez Aitzol zenaren jaioteguna gogoratzeko bildu garelarik, haren lan eta emaitzen bitarteko izan zen *euskaltzaleak* elkartearen inguruko azalpen batzuk eman nahi nizkizueke, sarritan aipatu arren, irudi lainotsu xamarrak estaltzen baititu elkarte honen zeregin, ezaugarriak eta bilakaera. Aitzolen aktibitate zabalean kultur arloari soilik lotuko natzaio ni, beraz, kultur eragile gisa, edo oraindik zehazkiago, literatur eragile gisa eginiko lan handiari.

Ondoren azaltzen saiatuko naizenez, 1927-1930 bitartean Jose Maria Agirre "Lizardi"k diseinatu zituen *euskaltzaleaken* egitura, antolaketa eta aktibitateak. 1930etik aurrera, aldiz, Errepublikaren etorrerarekin batean, Aitzolek hartu zuen taldearen gidaritzza eta apurka-apurka eratuz eta finkatuz joan zen, Pizkundearen azpiegitura kultural eta literarioaren oinarria bilakatu arte.

Olerkariak plazaratzea, ezagutzera ematea eta liburuak argitaratzen eta saltzen laguntzea izan zen *euskaltzaleaken* asmo nagusienetako bat, zalantzarik gabe. Halere, *euskaltzaleaken* aktibitateen ingurura bildu ziren idazleak lehendik ere ezagunak ziren, garaiko aldizkari eta egunkarien bidez ematen zituzten euren lanak ezagutzera, ezizenez sinatuak. Halere zalantza gabekoa da *euskaltzaleak* taldeak eskaini zien azpiegiturak elkartu zituela, eta beren artean aski ezberdinak baziren ere, denak xede euskaltzale, kulturzale eta literario anbi-zietsuetara bideratzea lortu zela.

*Euskaltzaleak* taldearen proiektio horretan bi norabide eta bi epe ere defini daitezke garbi: 1927an Arrasaten sortu zenetik 1930 artekoa, Lizardik egituratu eta gidatu zuen epea dugu lehenengo hau. Bigarren epea, ezagunena, 1930tik 1936 artekoa da, eta Aitzol izan zuen eragile eta gidari. Lizardiren garaia sortze eta eratze epea izan zen, Aitzolena finkatzeko garaia.

Lehen epeari buruz Lizardiren eta Aitzolen artikuluen bidez ezagutzen ditugu zenbait zehaztasun. Aitzolek, garai horretan Bartzelonan ziharduen elizagintariak misiolaritza arloan emaniko zereginetan, baina ongi ezagutzen zituen hemengo aktibitate guztiak, Lizardi adiskidearen bidez. Honela kontatzen ditu Aitzolek Lizardi hil ondoko artikulua batean taldearen sorrera eta lanei buruzko gorabeherak:

“El mes de octubre de 1928 inició (Lizardi) una campaña de prensa en euskera y en erdera sobre acción euskerísta, que explanó en diez artículos. Surgió la polémica. Y Lizardi concibió la actividad al servicio de esta iniciativa. Hizo estudios detallados sobre el nuevo diario, editó un número espécimen; escribió artículos y conferencias para crear ambiente; proyectó presupuestos; ideó una encuesta; recabó colaboraciones y, por fin, en el Cursillo de Verano de la Sociedad de Estudios Vascos pronunció dos conferencias sobre el tema.() Convertido ya en cerebro y alma del movimiento renacentista organizó las recordadas fiestas literarias euskaldunes de Andoain en honor a Laramendi y fue uno de los más eficaces colaboradores del Día de la Poesía Vasca de Rentería, así como del Niño Euskeldun de Segura, del del Euskera en Ber-gara...” (“El poeta J.M. Agirre “Xabier Lizardi” 1933, Yakintza)

Lizardik *Euskaltzaleak* emaniko egitura eta xedeak azaltzen dituzten zen-bait idatzi eta artikulu baditugu lekukotzat, baina horietan adierazgarrienak Zumaia eta Arrasateko bilereterako prestatu zituen hitzaldietan aurki ditzakegu. 1930ko bi hitzaldi horietan Lizardik aurreko urteetan eginiko lanak jaso eta ebaluatu ondoren, Zumaiakoan xede eta egitura berriak zedarritu zizkion. Gutxi gora-behera honela labur daiteke Lizardik esaten zuena: Euskaltzaleak 1927an sortu zela Arrasaten “lagunarte euskaltzale bat”en gisan, eta handik aurrera talde hori hazitzea eta ugaltzea izan zela asmo nagusia.

Lizardiren hitzetan esateko, Euskaltzaleak taldeko partaideei ez zaie “eguneroko xentimoa eskaintzea” besterik eskatzen, urteko kuota 3,6 pezetakoa izaten zen eta, horrenbestez, ez zitzaion euskaltzaleari ideario jakin bati atxikitzea eskatzen. Euskaltzalea izatea zen baldintza bakarra, Lizardik “abertzaletasun pittinena” esanez formulatzen zuen aportazio xumea besterik ez zen behar. Gainerakoan, bakoitzak bere ideia izan zezakeen:

“Zer egin nai degu “Euskaltzaleak” bazkun hontaz?... Lagun-arte ugaria egin nai denduke. Euskera ta euskotasunaren aldeko eguneko xentimoa dalarik sari laburrena, bazkide asko ta asko bildu nai genituzke. Euskal-Erria osoan gure egoen itzala zabaldu. Biotz oneko euskaldun oro, bildu gure lantegian, zein politikakoak diren begiratu gabe(...) Guk ez, guk eztiogu inori osoko gizakia izatea eskatzen. Guretzako naikoa da abertzaletasun pittiniena, eguneko xentimoz neurtu ditekenez abertzaletasun pixka aski degu. “(Zumaiako itzaldia. 1930-III-9, *Kazetari-Lanak*”, Erein 1988, 252 orr.)

Ordurarte antolatutako ekintzak euskararen aldeko aktibitateak ziren bati-pat: haurrak eta helduak euskaltzaletzera bideraturiko jaialdiak eta ospakizunak, baina kultur arloko bestelako ekintzetara ere heldu nahi izan zuen elkar-teak Lizardiren proiektuari jarraituz: Egunkaria sortu nahi zuen, argitalpenak egitea eta ezagutzera ematea liburu ferien bidez, egunkarietako kritika eta iruzkinen bidez. Orokorrean euskal kulturaren adierazpen modu guztiei erraztasunak ematea zuen helburu: liburu feriak, jaialdi euskaltzaleak eta literarioak, antzerki saioak, irratisaioak...



Antolaketari zegokionez, berriz, Lizardik euskal idazleak elkarrekin harremanetan jartzea izan zuen asmo nagusietako bat. Elkar ezagutzeko eta elkarrekin lankidetzan aritzeko bideak urratzea. *Euskaltzaleak*en bidez euren izen eta ezizenen zerrenda lortu eta Euskal Idazle Batza eratzea lortu zuen: la “Federación de Escritores Euskéricos” eta aldika-aldika bilduarazten zituen, Egunkariaren proiekturako kolaborazioak lortzeko. Sortze lanak bipiltzeko asmoz sortu ziren sariketa edo jaialdiak lehenengo Andoainen Larramendiren omenez, eta aurreraxeago, Jautarkolen omenezko 1930eko Lehen Olerti Egun ospetsua.

Santo Tomás egun batez, Donostiako Parte Zaharreko “cenáculo” batean, hots, elkarte gastronomiko-kultural horietako batean sortu zen asmo hori, ziu-rrenik, Donostiako giro kulturalako pintore, arkitektu, eskultore eta idazle batzuek osatzen zuten GU taldekoak bildu ohi ziren elkarte gastronomiko-kultural batetik ez urruti. Gudaurreko Donostiako Parte Zaharreko elkarteak kultur el-kargune garrantzitsuak izan ziren, bistan denez.

Eta, nire ustez, arira dator honetaz ere hitz egitea, izan ere sarritan gertatzen da gudaurreko garai honi buruzko idea xelege xamarrek topatzea: batzuek idealizazio eta nostalgia handiz begiratzen diote, gerraurreko garaiei epika gisako batek kutsaturiko ikusmira dute; beste batzuek aldiz, beren abarkei begira bizi izandako jeltxide mordo bat izan balira bezala gaitzetsiko dituzte aisa. Baina bi ikuspegiak dira gezurrezko eta kaltegarri. Garai hartako esperientziatik guri ongi etorriko litzaizkigukeen irakatsiak alferrik galtzeko arriskutan jartzen gaituzte eta.

Lizardi, Labaien, Aitzol, Lauaxeta, Aita Estefania, Orixe Zaitegi eta beste asko hezur-mamizko pertsonak izan ziren, beren garaiko arazoei eta munduari begiak irekita begiratzen zietenak, eta garaiko korronte ideologiko eta artistikoen berri bazutenak. Joera handia nabaritzen dut gerraurrekoak patroï baten neurrira ebakiak zirela pentsatzekoa: “euskaldun fededun eta kitto” lemaren azpiko paradigmak sartzen dira sarri, erreparu handirik gabe.

Baina, izatez, oso ezberdinak ziren elkarren artean eta joera ezberdinak zituzten hainbat puntutan: formazioz alde handiak zeuden, norberaren talantea ezberdina zen, zaletasun literarioak ere bai, hautatzen zituzten eredu lingüistikoa ezberdinak ziren... Garaiko giro politikoarekin zuten harreman hestua ere irudi topiko zenbait sortu izan ditu, baina, denak abertzale ez baziren ere, gehienak nazio baten kultura propioa berreskuratzen ari zirelako kontzientziak ziharduten.

Halere, debate irekian ziharduten bestelako idearioak eta joerak zeuzkan jendearekin. Froga gisa, ikus Aitzoloren 1934ko artikuluan olerkarietako batzuek Olasagasti pintorearekin eta Cabanas-Erauskinekin izandako eztabaiden berri ematen digunean:

“Va ya para los cuatro años. Era el mismo Donosti “zarra”. El día ferial de Santo Tomás. Día memorable por tanta iniciativa renacentista. Departían los

poetas euskaldunes “Lizardi”, “Jauregi” y “Orixe” y el comediógrafo Labayen, con los pintores Kabanas-Erauskin y Olasagasti. Dialogaban sobre arte. Estos últimos, más apegados al “universalismo”, al ecumenismo del arte. Aquellos con una concepción más racial, más particularista de la emoción artística. Sostenían los liberales que el verdadero arte es el que nace de los véneros inagotables del alma popular, de tan enorme poder creativo, que sin su colaboración apenas se haya creado una obra grandiosa por ningún poeta ni escritor. Y surgían las citas de Homero, Virgilio., Petrarca, Dante, Milton, Shakespeare...en cuyas obras iban citando los elementos folklóricos indiscutibles con los cuales edificaron sus ingentes producciones. La mejor manera por tanto, de cooperar a la cultura artística universal es hacerlo a través del alma popular, en cuyas entrañas nos movemos y nos hemos amamantado. No lo rechazaban del todo nuestros pintores, () pero estaban sometidos a una fuerte corriente universalista, que en más que en ningún género en las artes plástica y pictórica había influido la postguerra. No más fronteras, y menos en la del arte...” (AITZOL:Idazlan guztiak. VI. alea, Los pintores en el Renacimiento Vasco. 1934, 10-11 orr.)

*Euskaltzaleaken* bilakaerarekin jarraituz, Aitzolek 1930ean zuzendaritza hartu zueneko garairaino joango gara. Lizardiren eskutik talde antolatu bat heredatu zuela esan daiteke bi mila inguruko bazkide multzo zabala zuena eta herri guztietara hedatzen zen egitura eraikia zuena Lizardiren gestio garaietatik. Idazleek ere *Euskaltzaleaken* bidez elkarrekiko harremanak eginak zituzten, esana dugunez...

Bestalde, bazkide sistemaren bidez, gutxienezko eskuartekoak ere bazituzten beren aktibitatearako eta irakurlego potentzialaren zerrenda ere egina zuten.

Aitzolek *Euskaltzaleaken* sareari etekin berria atera ahal izan zion 1930etik aurrera, Primo de Riveraren diktadura amaitua zelarik, erakundeen diru-laguntzak jasotzen hasi zirelako eta Errepublika garaian argitaratzen hasi ziren egunkari eta aldizkari berrien bidez promozionatu ahal izan zituelako taldearen aktibitateak. Zehazkiago hitz eginez gero, esango genuke Aitzolek *El Día* egunkaria bilakatu zuela *Euskaltzaleaken* aktibitateen bozgoragailu ozena eta 1933an ateratzen hasi zen *Yakintza* aldizkaria izan zela taldearen emaitza kulturalen hedabide nagusia.

Aitzolek 1930ko lehen artikuluetan isladatzen duen giroak zerbait berria du Lizardiren artikuluen aldean, zentsura politikoak Lizardi jartzen zion bozala kenduta hitz egiten du Aitzolek, honen aipamenak askoz esplizitoagoak dira, aktibitateak askeagoak eta ugariagoak.

Argitaratu zuen lehen artikuluetako bat “Optimismo y actividad” izenekoak izenburuan bertan ematen du ezagutzera zein zen giroa, aski adierazgarria gertatzen da: lanerako amorru biziz dabil bera eta bere inguruan dabilzanei eragiten die bizkor. Horieta batzuk oso ezagunak dira, aipatuak ditugu daogeneko, beste batzuk, aldiz, ez dute urteen ahanzturaren muga gainditu: Al-

tzeta, Aberri, Mendi-Lauta, Atarrene, Otarra eta Udalamendi, Luzear eta Ayanbe, eta hauekin batera aipatzen du Aitzolek Lizardiren izena “juntamente con Lizardi que modela su alma y dirige su acción”.

Urte horietan idazleak ugaritu, gogo-berotu eta laguntzeko ahaleginean jarraitzen zuten euskaltzaleek, eta horretarako antolatzen ziren jaialdi, sariketa, liburu-feria eta abarretan ahalegintzen ziren, literaturak berpizkunde kulturaleetan indar berezia zuela sinesten baitzuten. Berez, Aitzolek lehen urte hauetan garatu zuen aktibitateak lehendik Lizardik zedarrituriko proiektuaren espuru berean ihardun zuten.

Izan ere, Lizardik eta Aitzolek egoeraren ikuspegi objektibo bera edo oso antzekoa baitzuten: beren ustez, modernitateak eta progresoak hil ala biziko auzia jarria zion euskal kulturari eta nortasunari, eta kinka larri horretatik ateratzeko aurrera egin beharra zegoen. Nola? Euskal kulturari hazteko baliabideak eta tresnak emanez, eta bereziki literaturgileei erraztasunak emanez, zeren, beren ustez, literaturak indar berezia baitzuen jendearengan eragina izateko eta hizkuntzaren berpizkundera motorraren funtzioa izateko.

Helburu horretarako Lizardi eta Aitzolek osatu zituzten proiektuek plano kulturalan ziharduten biek baina ezberdintasunak nabari daitezke bien artean: Lizardik ongi ezagutzen zuen literaturaren bilakaerari buruzko ikuspuntu autonomoagoa eduki zuen beti. Sinesten zuen literaturak kultur banguardía izateko funtzioa bete zezakeela, giro kulturala bizkortu eta berpizteko funtzioa izan zezakeela, baina nolabaiteko indar hori ez zela berehalakoan sumatzeko modukoa izango pentsatzen zuen, beharrezkoa izango zela legamia jartzea noizbait ogia altxatzeko, hazia erein behar zela aurrenik noizbait landarea erne eta zuhaitz bihurtzeko.

Baina Lizardiren ustez berpizkunde kulturalak belaunaldiak behar zituen, eta estrategiarik arrakastatsuenak ere ez zezakeen berezko bilakaera hori aldatu. Lizardirentzat literaturak bere bideak ditu eta ezin dira bihurriak diren bide-zihorrak zuzen bihurtu...

Aitzolek aldiz, literaturak eta hizkuntz berpizkundeek elkarrekin omen duten harreman hestuan sinesten du; bere ustez, beharrezkoa da euskal literatura bizkortzea eta herriarengan eragina izango duen literatura egitea, herriaren bizitza kulturala indartu dedin. Aitzolek Probenzako Mistralen efektua bilatzen du, edo oraindik hobea litzatekeena, Finlandian Lonrot poetak bere herriaren arima eta nortasun kulturala bilbatuz idatzirik “Kalebala” obraren eragin handia. Hango fenomeno nazional hura euskal herrian errepikatzea nahi zuen. Euskal Herrian ere posible zela sinesten zuen literatur obra hark Finlandian pizturiko kontzientzia nazionala indartzeko fenomenoak gertatzea.

Lizardik belaunaldiak beharko zirela ikusten zuen, Aitzolek aldiz, berehalako fruituak lor zitezkeela epe laburrean.

1930ko artikuluetan jadanik guztiz mamiturik zegoen literaturaren zereginari buruz Aitzolek zuen ideia, eta zein-nolako tokia ematen zion literaturari kultur proiektu orokorrean. Urte horietan Europako hizkuntza minoritarioen bilakaerari buruz ezagutzen zenak (Beljika, Txekia, Finlandia, Irlanda...) eta berak euskal kasuaren inguruan eginiko hausnarketek eraman zuten *Euskaltzaleaken* bidez gauzatzzen saiatu zen proiektua moldatzera, euskal herriko bizkude kulturala bizkortzeko.

Proiektu heldua eta zoritua zen 1930ean artikulua argitaratzen hasi zenerako *El Día* eta *Euzkadi* egunkarietan.

Halere, 1930-36 bitarteko denboran zehar Aitzolen ikuspuntua aldatuz joan zen pixkanaka, batez ere garaiko irakurle eta ikusleek, hots, garaiko euskaldunek berak eragin nahi zuen mugimenduari emaniko erantzun epelaz ohartu ahala. Liburu salmentak motelak omen ziren, euskal egunkaria atera ahal izateko harpidetza zabaltzeko saioek porrot egiten zuten, erakundeak ere gero eta mukerrako agertzen omen ziren dirulaguntzak ematerakoan, euskal eskoletako matrikulazioa oso geldoa...

Aitzolek 1933rarteko epean argi eta garbi promozionatu zituen literatura arloan Europako literaturaren bidetik jotzen zuten olerkari berrizaleen lanak. Abangoardiako lana egiten zutenen alde, bideak urratzen ziharduten Lizardi, Loramendi eta Lauaxetaren lanen promozio sutsua egin zuen, *Euskaltzaleaken* sustatze gaitasun guztiaz baliatuz: kritikak eta iruzkinak eginarazi eta argitaratu, liburuen propaganda egin, hitzaldiak eta abar antolatu, sari literarioak eman... Apostu garbia egin zuen literaturaren berrikuntzaren alde, euskal literatura aberastu egiten zutela sinesten zuen, nahiz eta aldi berean gure "Kalebala" egingo zuen euskal idazlea bilatzen ziharduen eta Orixe zeukan horretarako aukeratua. Euskal herriaren kantua sortzeko gaitasuna zeukan idazle doioia zela sinesten zuen...

Laister nabaritu zuen Aitzolek idazle berrizaleen lanek ez zutela irakurlegoan eta euskaldunen artean berak nahi eta espero bezalako erantzunik sortzen; bere ustez, arazoa idazlan horien maila jasoegian zegoen, berrizaleen hizkera zail eta bihurria zen zabalkunde motel horren errudun nagusia.

"Neroni naiz erruduna" esanez adierazi zuen Aitzolek 1933an joera berrizaleekiko etsia. Berak apoiatu izan zuen bide abangoardiazaleari okerra irizten hasi zen, bere ustez, idazle berriak "liluratu eta desbideratu" egiten zituen, eta irakurlegoari errazago gertatuko zitzaizkiokeen literatur fruiturik gabe geratzen omen zen euskal literatura.

Aitzolek dioenez, idazleek "euskal estetika" sortu behar dute tradizioan oinarriturik, bere ustez, euskal herriak bai baitu "edergaietan bere kera berezia" eta horixe da euskal estetika berriaren oinarritzat hartu behar dutena artistek.

Herri olerkigintzaren ekarriari oharturik eginiko Aitzolen proposamen honek arrazoi hirukoitza izan zuela pentsa genezake. Alde batetik, euskal kultu-

raren erroen berreskurapenean saiatzen ari ziren mende hasierako euskal kulturaren sortzaileen kezka berak ikutua zegoen Aitzol, Barandiaran, Lekuona, Kizkitza etabar bezala. Kasu honetan Aitzolek euskal estetika berezkoa ezagutzera emateaz gain, sortzaile berriei hartan inspiratzeko proposamena egiten zien.

Izan ere, eta hau izan daiteke bigarren arrazoa, olerkigintza herrikoia irenburuetatik edateko joera indarrean zebilen garai hartan Europa aldean. Espainian nahiz Frantzia sinbolismoaren eta surrealismoaren garaikide izan zen beste joera hau ere, herri olerkigintzaren iruditeria eta zenbait teknika berreskuratu eta berrerabiltzeko ezaugarri berezia zuen joera literarioa, alegia.

Aitzolen kasuan European garaiko literatur joera izatearen arrazoiari euskal nortasun bereziaren taxua berreskuratzeko gogoia ere erantsiko zitzaion beraz. Baina bada oraindik beste arrazoirik Aitzolek joera hau hobesteko, arrazoi pragmatikoa, alegia: olerkigintza herrikoia ekarriaz baliatzen den mogimendu honek sorturiko literatura ulertezagoa zaio irakurle arruntari.

“Antziñako oituren piztutzea” izeneko artikuluan olerkigintza mota herrikoia honek zuen adieraztasuna eta erakargarritasuna azpimarratu zituen, zalantzarik gabe, bere ustez, entzulegoa adiago egongo zen tankera honetako literatura jaso eta estimatzeko.

Beraz, Aitzolek herri literaturaren estimazio bolada honetaz baliatu nahi zuen helburu pragmatikoak lortzeko, arrazoi praktikoa zituen olerkari “yakin-tsu”en taxua eta joerak alde batera uzteko.

Nolanahi ere, herri literaturara joaz gaintu nahi izan zuen Aitzolek bere ustez garaiko idazle-irakurleek bizi zuen kontraesana edo krisia. Baina, urteak aurrera egin ahala krisi horrek konponbide txarra zuela nabaritzen joan zen.

Irakurleak erakartzeko ahaleginaren porrota nabarmena zen bere ustez, antolatzen ziren aktibitateetan izaten zen partaidetza gero eta motelagoa zen, euskal irakaskuntza hautatzen zuten gurasoak gutxiegi ikastolak irekita mantendu ahal izateko, egunkarietako euskal artikulua hautatzen zituzten irakurleak bakanak...

1935-36 aldera giro politiko abertzalea guztiz sukartsu eta iskanbilatsua bazen ere, Aitzoli iruditzen zitzaion eferbeszentzia horrek ez zuela isladapenik euskal bizitza kulturalan, eta euskaraz eginiko produkzioak ez zuela nazioaren bebizkundearen zegoian tokirik eskuratzen, erdaraz garatzen ari zela erabat...

Errealitateak zapuztu egiten zituen Aitzolen proiektuak. Gaurko begiegi ikusirik proportziorik ez da ikusten egoera guzti honetan: euskal gizarte euskaldunaren maila eta kontzientzia eskasa dugu alde batetik, edonoren gogorik beroena izozteko moduko paisaia zen, Lizardik berak aitortu zuenez; baina bestetik, *Euskaltzaleak* garaturiko aktibitateak bere horretan eman zitzaizkien

fruituei buruz eta eragin zezakeen mogimenduari buruz Aitzolek prospektiba anbiziotsuegiak zituela ere nabaritzen da.

Errealitate hori ezagutuz, Aitzolek azken urteetan lagun artean nahiz publikoki adierazi zuen ikuspegi etsituaren errudun nagusiak bere proiektuaren gehiegizko anbizioa eta mekanizismoa dira. Berak espero zituen epe laburre-rako fruitu haiek ez ziren inondik ageri, berehalako efikazioa horrek huts egin zion, nahiz eta berez euskal pizkunde mogimendu kulturala bera edo bere emaitza konkretuetako batzuk balioarriak izan, geroak frogatu duenez. Zeren euskal literaturaren eta kulturaren perspektiban ikusirik, Aitzolen Pizkunde garaia euskal literaturaren urrezko aroa izan zen, Euskaltzatzek taldearen inguruan bildu zen belaunaldi literarioa gure lirikaren gailurra.

Dudarik ez izan bihotz osoz aritzen zen Aitzol harritu egingo lukeela Lizardi, Lauaxeta eta Orixereren liburuek euskal literaturaren pespektiban merezi izan duten balorazioak eta estimazio handiak. Gudaondorengo agorraldiaren paisaian balio berezia hartu zutelako alde batetik, baina baita idazle eta kritikoei haien lanen berezko kalitatearen aitoparen ondorio. Ikusiko luke neurri handi batean Aitzolek berak eragin eta bultzatu zuen Pizkunde mugimenduaren errealizazioei buruz azken urteetan hartu zuen etsimendu handia ez dela oraingo balorazioetan isladatzen.

Beharbada giltza zerean dago, Aitzolek gehiegi espero zuela kultur mogimendu horretatik, bete ezin zuen funtzioa erantsi nahi ziola literaturari euskal gizartearen eta kulturaren bilakaeran, eta honi inposatu nahi izan zion erritmoa ez zezakeela literatura bezalako aktibitate artistiko independientak onartu.

Aitzolen proiektua efikaziaren irizpideari lotuegi zegoen, berehalako eragina hartzan zuen helburutzat, baina literatura eta kultur mogimenduak ez izaki hain erraz gidatzekoak nonbait... Lizardik esan zion moduan, ezinezkoa zen literaturgile guztiek orkestra bateko interpreteak bezala "txotx" baten agindutara makurraraztea. Literatura artea zen eta idazleei beren "eskuera" behartzeko eskatzea ezinezkoa. Idazle asko, saio asko eta belaunaldiak behar ziren, antza, fruituak ikusi ahal izateko.

Literaturaren bilakabideari eta funtzioari buruzko usteetan urrunegi joana bazen ere, Aitzol eragile aparta izan zen, gainerakoan sakabanatuegia, indargabetuegia eta noragabetuegia hazten ari zen euskal literaturaren bide erratuiei zentzu bat eman zien; betebeharrak anbiziotsua eman zien eta batez ere, ahal izan zuen neurrian, azpiegitura literarioa eskaini zien, gero berak espero ez zuen aldetik jo bazuten ere.

Izan ere, Aitzolek bilatzen eta lortzen baitzituen inork baino trebeago *Euskaltzaleak*en aktibitateetarako laguntzak patrika publiko nahiz pribatuetan, berak antolatzen baitzituen liburu eta aldizkariak argitaratzeko harpidetzak eta banaketa sistemak, liburu feriak eta argitalpenetarako diruak... Berak bihurtu zuen *El Día Euskaltzaleak*en aktibitateen bozeramaile eta hedatzaile...

Luzea litzateke Aitzolek eragindako aktibitate guztiek osatzen zuten azpiegituraren sarea osoki azaltzea baina, laburki esanez, bera izan zen euskal literaturaren urrezko literatur aroari azpiegitura literarioa ehio zion pertsona, halere, tamalez, berak ezin izan zuen behar bezala nabarmendu gudaurreko urte zalapartatsu haietako giroan azpiegitura horren babesean sorturiko emaitzarik ederrenen balio intrinsekoa.

Berak literaturaz haruntzagoko beste zerbaiti oharturik ziharduen, sortze lan horiek gizartean izango zuten eraginari begira alegia, eta euskal kulturaren berpizkundeak kezkatzen zuenez, ez zitzaion iruditu lan berrizaleak euskal gizartea eta kultura pizteko gai zirenik. Bere ustez, euskal gizartean giro abertzale sukartsua bizi bazen ere, euskal gizartea irakiten zegoela bazirudien ere, euskarak ez zuen euskal gizarte eta kultura berrian izan beharreko tokia eskuratu. Horrek susmarazten zion euskal nortasunak eta berezko kulturak arrisku handian jarraitzen zuela.